
DIKOMA

**UDALERRI MAILAN HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN
DISKURTSOA SOZIALIZATZEKO ETA
HIZKUNTZA-KOMUNITATEAREN SISTEMA
AHALMENTZEKO ESKU-HARTZE PROIEKTUA:
OINARRIA FINKATZEN**

*Hizkuntza-ekologiaren
diskurtoaren ideia
nagusien bilketa*

2013/07/03

Belen Uranga. Soziolinguistika Klusterra

AURKIBIDEA	
SARRERA	3
1 Testuinguru orokorra: Diskurtsoaz	4
2 Euskal Herrian nagusitutako euskararekiko hainbat diskurtso, labur-labur	4
3 Hizkuntza-ekologiaren ikuspegi unibertsala	5
4 Euskal Herria: testuinguru partikularra	6
5 DiKomA ren diskurtsoa	7
1 HIZKUNTZA-EKOLOGIA OINARRI HARTUTA.....	9
Hizkuntza-ekologiaren erdigunea: Iraunkortasuna	9
Idea orokorrak	9
2 XXI. MENDEKO BIDEAN BILAKAERA KONTZEPTUALA	12
2.1 Aniztasuna babestetik garatzera	12
Idea orokorrak	12
2.2 Mundua hemen; hau munduan / Mundua gurea; gurea mundukoa	13
Idea orokorrak	13
2.3 Nazioarteko pentsamendu-joera	14
Idea orokorrak	14
2.4 Jabetza (uste) izatetik eroale, eramaile, emaile izatera	15
Idea orokorrak	15
3 HIZKUNTZA EKOLOGIAREN ANALITIKA	16
3.1 Ekosistema/Habitat kontzeptua	16
Idea orokorrak	16
3.2 Ekosistemaren aldagai sistemikoak	18
Idea orokorrak	18
3.3 Ingurumena/gizakia/gizartea	20
Idea orokorrak	20
4 BALIO ETIKOAK HOBESTEA.....	21
Idea orokorrak	21
4.1 Hizkuntza-aniztasunaren balio unibertsalaren printzipioa	21
Idea orokorrak	21
4.2 Berdintasunaren printzipioa.....	23
Idea orokorrak	23
4.3 Subsidiaritate printzipioa	24
Idea orokorrak	24
4.4 Elkartasunaren printzipioa / Zuhurtziaren printzipioa / Gizarte erantzukizunaren printzipioa / Belaunaldiaren arteko ekitatearen printzipioa	25
Idea orokorrak	25
AMAIERA-OHARRA.....	27
BIBLIOGRAFIA AIPAMENAK	28
ERANSKINA: EKOLOGIATIK ZER BALIATU? DIKOMA, HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN DISKURTSOA LANTZEKO IDEIEN BILDUMAREN ESKEMA.....	32

SARRERA

DiKomA hizkuntza-ekologiaren diskurtsoa sozializatzeko eta hizkuntza-komunitatearen sistema ahalmentzeko proiektua da, Eusko Ikaskuntzak eta Soziolinguistika Klusterrak zuzendurikoa Gipuzkoako Foru Aldundiaren, UEMAREN eta Oñati, Errenteria, Zumaia eta Bermeoko udalerrien diru-laguntzarekin.

Dokumentu honek proiektuaren lehen faseko eduki-txostena biltzen du. Bertan, udalerri mailan hizkuntza-komunitatearen trinkotzea xede hartuta, *hizkuntza-ekologiaren* ideia nagusiak biltzea dira, eta ideia horiek zer-nolako diskurtso-elementutan islatu daitezkeen zehazten; ez da bilatu behar hemen, beraz, filosofia eta praktika horren alderdi guztien berri garatua. Horrela, *diskurtso mailan abalik eta erabileraren zuzenena izateko ideia-bilketa* eta *ideia horien diskurtso-elementuak* eskainiko dira, testuinguru orokor laburra abiapuntu modura hartu eta gero. Kontuan izan behar da -dokumentu honen erabilgarritasuna helburu-, ideiak oso modu zuzenean lerratu direla (ia-ia hurrenkera hutsean), idazketa estilo zeharkakoa alde batera utziz.

Dokumentu honek honako eskemari jarraitu dio:

Sarreraren atal honetan *diskurtso* kontzeptuaz hitz bi egingo dira lehenik, eta Euskal Herrian azken hamarkadatan euskararen inguruan nagusitu diren hainbat diskurtsoren aipamena egingo da ondoren. *Hizkuntza-ekologiaren* inguruko balio unibertsalaren inguruko ideia batzuk emango dira gero eta Euskal Herrian kokatzerakoan kontuan hartu beharreko hainbat berezitasunaren inguruko aipamenak.

Ondoren, 1. atalean, *hizkuntza-ekologiaren* helburua den *iraunkortasuna* kontzeptuaz hitz egingo da; bigarren atalean, XX. mendearen amaiera aldean hasi eta XXI. mendea bitartean ekologiaren inguruan gertaturiko bilakaera kontzeptualaren berri emango da; hirugarrenean, *hizkuntza-ekologiaren* ezagutza zientifikoari buruz arituko da, eta, laugarrenean, ikuspegi etikoaz azalpenak emango dira.

Atal horietan guztietan ideia orokorrez gain, ideia horien isla diren diskurtso-elementuak eskainiko dira atalez atal sailkatuta.

Azkenik, eranskinean, ideia horiek guztiak eskema modura eskaintzen dira. Eranskin horretan interesgarria iruditu zaigu hizkuntza-ekologiaren inguruko diskurtso-elementuekin batera ekologiak erabiltzen dituenak ere parekatzea. Gizartean ekologiaren filosofiak eta diskurtsoak lortu duen arrakasta kontuan izanda pentsa daiteke hizkuntzaren kasuan parekatze horiek egitea onuragarria izango dela.

1 TESTUINGURU OROKORRA: DISKURTSOAZ

Diskurtsoa eta hizkuntza-ekologiaz arituko da DiKomA dokumentu honetan; *diskurtsoaz* Xabier Erizek aipatzen duen zentzuan: “*diskurtsoa* terminoa ideologia, uste, edota mentalitatearen adierazpena da” (Erize 1997. 381 or.). Erreferentzia berean honako bereizketa egiten du aipatu egileak:

Diskurtsoa:

- Ideologia: pentsamolde orokorra, garbia eta *formalizatua* da.
- *Formalki egituratu gabeko pentsaera* da, mentalitatea, munduaren edota garaiko ikuskera eskaintzen duena.
- *Gizarteak bere burua* –ordena soziala- *azaltzeko eratzen dituen irudikapen* edo errepresentazioen sailean biltzen dira.
- Diskurtsoak *ideia adieraziak* dira. Hau da, agerian adierazten diren ideia gordea

Dokumentu honetan, beraz, euskal hiztun-komunitatea trinkotzea helburu, hizkuntza-ekologiaren ideia nagusiak islatzen dituzten diskurto-elementuak identifikatuko dira. Kasu honetan, diskurtoa ahalik eta formalizatuena izateko borondatea duen arren, formalki egituratu gabea ere azalduko da hainbatetan. Azkenik, gizarteak bere buruarekiko duen errepresentazioak ere izango du lekua, ekologiak bezala, hizkuntza-ekologiak ere, ez duelako hizkuntzez soilik hitz egiten, baizik eta etorkizuneko mundua gaur egun eraikitzen hasi beharrez, eta eginkizun horretan gizarteari emandako irudiak lekua badu.

2 EUSKAL HERRIAN NAGUSITUTAKO EUSKARAREKIKO HAINBAT DISKURTSO, LABUR-LABUR

Diskurto berriaren proposamena egin aurretik, laburbil ditzagun azken hamarkadatan, zehazki XX. mendeko erdialdetik aurrera euskararen biziberritzearen inguruan garatu diren hainbat diskurto. Ez dugu hemen hizkuntzen (euskararen) minorizazio-prozesuaren inguruko gaiak eta diskurtoak aipatuko, baizik eta biziberritze-plangintzaren inguruan, normalizazioaren ikuspegitik nabarmendu direnak.

Honakoak dira labur-labur bereizi daitezkeen hiru ildo diskurtsiboak:

- *Diskurto identitarioa*: hizkuntza-normalizazioaren oinarri ideologiko sendoena eman duena, batez ere, talde abertzaleek garatu eta hedatutakoa. Iñaki Martínez de Lunak *Framing Aldarrikatzaiile* modura definitzen du berau: “euskara bertako zinezko hizkuntza bakarra eta euskal izaeraren ardatza d[uen]a” (Martínez de Luna 1013, 18).
- *Hizkuntza-eskubideen* diskurtoa: hizkuntza-komunitate gutxituen zutabe garrantzizkoa da hizkuntza-normalizazioan aldarrikapen sendoa eta emaitza oso positiboak lortu dituen.
- *Pragmatikaren diskurtoa*: hizkuntza-normalizazioaren prozesuetan bere eraginarengatik garrantzi handikoa, hizkuntzaren balio instrumentalean oinarriturikoa, eta hizkuntzaren erreproduktzioaren ikuspegitik emaitza oso positiboak eman dituen (Nelde et al. 1996).

Aipamen soil modura, gogora ekar daitezke hona euskararen biziberritze-prozesuan oztopatzaile diren diskurtso nagusiak:

- *Normaltasunaren* diskurtsoa, botere hegemonikoek praktikatzen dutena, liberalismo linguistiko modura ere defini daitekeena eta ahuldutako hizkuntza are gehiago ahultzera bideratzen duena.
- Martínez de Lunak *Framing Uzkarra* deiturikoa, aurretikotik oso hurbil dagoena, eta funtsean honako ideian oinarritzen dena: “euskarak biziraun dezan interbentzioa eta neurriak hartzea beharrezkoa dela ez badu ukatzen ere, halakoak proposatzean edota aplikatzean berehala arbuatzen ditu [diskurtsoak], inposiziotzat edo diskriminaziotzat joz eta erdaldunen hizkuntza-eskubideen kontrakoak direla argudiatuz” (Martínez de Luna 1013, 19).

Abiapuntua, beraz, aipaturiko ideia-multzoan jarrita, *ibilbidea* hizkuntza-ekologian ardaztuta, *belmuga* diskurtso berriaren isla izan daitezkeen diskurtsoaren elementuen bilduma izango da.

3 HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN IKUSPEGI UNIBERTSALA

Hizkuntza-ekologiak ikuspegi unibertsala du ekologiak bezala. Helburua ez da soilik hizkuntza-komunitate jakin batentzat teoria edo praxia sortzea, baizik eta teoria unibertsal bat sortzea. Eta horren araberrako irakurketa eta praktika unibertsala hedatzea. Izan ere, *hizkuntzen galtzeko arriskua mundu mailako fenomeno* orokorra da. Gainera, munduko hizkuntza-aniztasunaren galtzeko arriskua aurrekaririk gabea da bere indarra eta abiadura kontuan hartzen bada; aurreikusitako ezin diren ondorioak dituen fenomeno masibo eta kritikotzat hartzen da.

Fenomeno masibo horren aurrean eman beharreko erantzuna eta balizko konponbidea bide beretik joango da: *ahuldutako hizkuntzen iraunkortasuna ere mundu mailan jokatu da* neurri handi batean.

Hori horrela izanda, ezin albo batera utzi, ordea, *estatuengan eta euren hizkuntza-politikan dagoela hizkuntza-iraunkortasunaren giltza, neurri handi batean*. Horregatik, hizkuntza-ekologiak erantzukizunak eskatzen die munduko estatuari, *ezin dute[lako] ihes egin euren arduri* (Bastardas 2005) eta konpromisoa eskatu behar zaielako hizkuntza-aniztasunaren defentsan.

Ildo honetan, nazioarteko erakundearen artean oso kontuan hartzekoak dira *UNESCOn deskripzioak eta gomendioak* (UNESCO 2003a) beste erakunde pribatuekin batera, mundu mailako sentiberatze-lanetan ari direlako, esate baterako, Terralingua¹ moduko erakundeak.

Ekologiaren filosofiatik asko du biltzeko hizkuntza-ekologiak. Eta baita ekologiaren ideologiatik hurbil dauden nazioarteko bestelako pentsamendu-joeretatik ere. Horien artean oso emankorrak dira *gutxiengoaren ideologiak eta elkartasunaren oinarritutakoak, goranzko joeran baitaude* (Martel 2003:232), ideologia hegemonikoak nagusi diren arren. *Elkartasuneko ideologiek ez dute onartzen indartsuenaren biziraupenaren kontzeptua*. Aldiz, giza ongizatea *gizartearen ongizatean* oinarrituriko ongizate indibidualean zentratzen dute. Eta ikuspegi honetatik hizkuntza[ar]en iraunkortasunaren filosofiak eta praktikak asko du ikasteko.

¹ Terralingua: <http://www.terralingua.org/>

Bide bertsutik aldarrikatzen du Albert Bastardasek hizkuntza gutxituetako komunitateen duintasuna: *hizkuntza gutxituetako komunitateek duintasun osoa dugu geure hizkuntza- eta kultura-baliabideak garatzeko*, munduko beste hizkuntzak bezala (izan horiek sozialki handiak, ertainak edo txikiak) munduaren zati txiki bat izan arren (Bastardas 2011). Gainera, *hizkuntza gutxituetako gizarteak munduaren aurrean duen erantzukizunari erantzuten dio* hizkuntzaren iraunkortasuna ziurtatuz (geure hizkuntza-aniztasunaren iraunkortasuna, espresuki euskararena) gizateriaren hizkuntza-aniztasuna babesteko; *gutxitutako hizkuntza eskaini behar zaio munduari* zor zaion errespetutik eta konpromisotik.

Bestalde, globalizazioaren garaiotan *komunitate gutxituen arteko elkartasun-mugimenduak* ugaritzen ari dira (Martel 2003:236). Ideia hori indartsu zabalitzen ari da nazioartean, globalizazioaren baitan bi joera bereizten ari diren arren: alde batetik, *hizkuntza gutxituetako komunitateak euren identitate linguistikoa indartsu aldarrikatzea*, eta, bestetik, *hizkuntzak norbanako hipermodernoan identitate-egituran gune zentrala galtzea*. Gaur egungo gizarte hipermodernoan egoera paradoxiko hori antzematen da (Johnson 2003:194), eta oso presente izateko moduko kontraesana dela dirudi.

Dena dela, *ekologiaren eta ekologismoaren esperientzia eta gizartean duen pisua* irakasbide izan daiteke hizkuntzen arloan. Eta *globalizazioaren* garaian aukera-moduan planteatzeko eredia izan daiteke ekologia bera den bezala.

4 EUSKAL HERRIA: TESTUINGURU PARTIKULARRA

Ikuspegi unibertsaletik hurbileko hiztun-komunitatera jauzi eginez, komunitatearen lurraldean bilatu behar ditu biziberritze-prozesuetarako baliagarriak izango zaizkion diskurtsoak, *hiztunak* eta *hiztun-komunitateak* erdigunean jarritz.

Euskal Herriko lurraldean *euskal hiztun-komunitatea gaur egun oso heterogeneoena* da, azken urteetan aldaketa handiak gertatu direlako, esate baterako, hiztun-tipologiari dagokionean. Adibidez, dagoeneko aipatu den *diskurtso identitarioak* oso baliagarriak izaten jarraitzen duten arren, gaur egun identitatearen inguruko pertzepzioak eta bizipenak aldatu dira, eta, beraz, komunitatearen ezaugarrien aniztasunaren kontzientzia izatea ezinbestekoa da. Identitatearen inguruko diskurtsoek horregatik, honako bereizgarriak ezagutu behar ditu:

- *Identitatea sozializaziojoko bizipenetan oinarritzen da* gaur egun (bere konplexutasun osoan), ez ezagutzaren transmisioan bakarrik.
- *Identitatea erreferentzia anitzaren bitartez osatzen da*, gaur egun (hizkuntza, erlijioa, adina, sexoa, lanbidea, hiritartasuna...) Kontuan izan behar da hizkuntza-identitatea, gainera, aldakorra izan daitekeela denboran zehar. (Johnson 2003: 192).
- *Nahimen, borondatea eta abalegina* eskatzen du euskaraz hitz egitea gaur egun, eta hori guztia elikatu egin behar da (Sarasua 2011).
- *Norbanako edo talde-identitatearekin* identifikatzen den kasuetan ere, *identitate anitzak* edo *beste motatako hizkuntza-barremanak dituztenen diskurtsoak* bil daitezke.

Arestian aipatu diren gainerako bi diskurtso-motei ere -hizkuntza-eskubideekin eta pragmatismoarekin loturikoak) sendo eutsi beharko zaie, eta, aldi berean, bide berriak ere bilatu beharko dira.

Euskararen aldeko motibazioen esparrua zabalduz, gogora daiteke hemen Jon Sarasuak proposaturiko euskaraz hitz egiteko motibazio desberdinen hurrenkera, diskurtsoa elikatzen dituzten heinean oso kontuan hartzeko modukoa delako (Sarasua 2012, 17-18):

1. *Fluxu-motibazioa* [...]
2. *Motibazio pragmatikoa* [...]
3. *Balio itsatsia ematen duelako* [...]
4. *Paradigmaren motibazioa*
5. *Mintzoaren abalmena*

Beraz, egungo gizartearen konplexutasuna kontuan hartuta, eta euskararen iraunkortasunak gizarte osoaren inplikazioa eskatzen duenez, hizkuntza-ekologiak *abertzaletasunean oinarrituriko diskurtsoa eta diskurtso horretatik at dagoena* bil dezake, neurri batean behintzat. *Hizkuntza gutxituetako hiztunengan* (eta taldeetan) eta *hizkuntza hegemonikoetako hiztunengan* (eta taldeetan) eragiteko gaitasuna du.

Ahuldutako hizkuntza aurrera ateratzeko gutxienez egin behar dena zer den esan behar du hizkuntza ekologiak; gizarteak jakin behar du neurri zehatzak jartzen ez badira ahuldutako hizkuntza ez dela aurrera aterako.

“No percibe a la otra como el enemigo a batir, sino como el interlocutor, el igual o semejante al que reencontrar. A esto lo llamamos sincronizar la compactación con la impactación. La compactación concierne a la articulación de la comunidad lingüística de pertenencia. La impactación concierne a la proyección de un modelo alternativo de convivencia, basado en el mutuo respeto y el intercambio recíproco, sobre los hablantes de la otra lengua”. (Sánchez Carrión, 182. bid., 316. or.)

Gizarte osoa inplikatu behar da hizkuntza ahularen *iraunkortasunean*. Soilik hizkuntza minorizatuko hiztunengan geratzen bada lorpena oso mugatua izango da; Gainera, *konfrontazio-planteamendutik harago bizikidetzara sendotzeko* gai izan beharko luke hizkuntza-ekologia.

“lo que esta Teoría propone no es mayorizar la lengua minoritaria, minorizando a la mayoritaria, términos a los que la perspectiva estatalista —de uno y otro signo— intenta llevar reiteradamente el problema” (ibid., 282. or.). Alegia, ideia hauek “no son para usarlas contra el dominador convirtiendo al verdugo en víctima y a la víctima en verdugo, reproduciendo incansablemente un círculo vicioso, cainita” (Sánchez Carrión, 182. or., 134. oin-obarra).

Hizkuntza-ekologiak *proiektu politiko desberdinen arteko zubiak* eraiki ditzake; ez du ideologia zehatz batekin lotura (Martínez de Luna) eta horrela *euskararen kontrako diskurtsoari aurre egiteko* balio du, euskararen defentsan, hizkuntza gutxituen kontrako erasoak edo planteamenduak geldiarazteko.

5 DIKOMA REN DISKURTSOA

DiKomAren helburua euskal hiztun-komunitatea trinkotzeko hizkuntza-ekologian oinarritutako diskurtsoa identifikatzea da; ideietatik diskurtso-elementuetara jauzi egitea.

Gogora daiteke, hasteko, euskal hiztun-komunitatea trinkotzearen inguruan Sánchez Carriónek eginiko gogoeta interesgarria. Zer da hizkuntza-komunitatea trinkotzea? Hara Sanchez Carriónek emaniko erantzuna:

“... la compactación consiste en hacer viable la comunidad lingüística que se quiere normalizar, posibilitando para la lengua un circuito completo, para los grupos sociales la articulación que optimiza sus posibilidades y capacidades actuales, y para los hablantes individuales la interacción que concreta su voluntad de ser individual en un funcionamiento social: el pueblo que al sostener la motivación existente y favorecer las capacidades, asegura la creación y transmisión (Sanchez Carrión, 1999b: 297. or.).

Hiztun-komunitatea trinkotu, bestalde, honako bidetatik lor daitekeela dio:

1. Hizkuntzaren ikasketa [naturala] eta ikasketa kulturala lotuz.
2. Hizkuntzaren ezagutza- eta erabilera-maila elkarrengana hurbilduz.
3. Talde soziolinguistikoak elkarren artean harremanduz.
 - a) *Belaunaldien arteko katea sendotuz*: hurrek eta gazteek euskararik hoberena duten zaharrengandik ikastea, eta hauek euskara erabiltzeko motibatuta sentitzea ikusten dutelako euren hizkuntza baliagarria zaiela belaunaldi berriei.
 - b) *Ingurune soziolinguistiko desberdinetako belaunaldi berekoak* elkarlotuz (Sanchez Carrión, 1999b: 298. Or.).

Oro har, komunitatea trinkotzearekin batera komunitate horren *abalmentzea* ere lortzeko bidean jarriko da sendotze argumentatzailearen bitartez. Eta sendotze argumentatzailea *hizkuntza-ekologia* ardatz hartuta izan daiteke.

Hizkuntza-ekologiaren helburu nagusia *hizkuntza(ar)en iraunkortasuna ziurtatzea* da *hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren balioaren garapen osoa* aldarrikatzen duelako (Bastardas 2005:19), eta horretarako, hizkuntza-ordezkatze prozesuari galga jarritz. Helburu hori, ordea, bi azpi-helbururen bitartez gauzatu nahi da:

- (a) *hizkuntza gutxiatuaren komunitatea trinkotuz*, eta
- (b) *eragina lortuz gizarte orokorrean*, hizkuntza nagusiaren hiztunak areriotzat jo gabe. (Erize 2011, 79).

1 HIZKUNTZA-EKOLOGIA OINARRI HARTUTA

Ondorengo ataletan, gai bakoitzaren inguruan ideia orokorrak eskainiko dira eta ideia horiek lantzeko diskurtso-baliabideak emango, esparruz esparru erabilgarri izan daitezzen.

Kontuan izan dokumentu honen eranskinean eskema ordenatuan lerratu direla ideia horiek guztiak, diskurtso-elementuak, eta osagarri izan daitezkeen ekologiaren diskurtsotik mailegaturiko elementu ugari.

HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN ERDIGUNEA: IRAUNKORTASUNA

IDEIA OROKORRAK

Hizkuntza-ekologia hizkuntzen existentziaren baldintzen zientzia da, hizkuntzen izatearen zientziaz, hizkuntza(k) bere ingurunearekiko eraginean aztertzen d(it)uena (Haugen 1972:325).

Zientziaren aztergai-ildoak honako biak dira:

- a) *Hizkuntza bakoitzak* bere ingurune sozialarekin duen harreman ekologikoa.
- b) *Ukipen egoeran dauden hizkuntzen arteko* harreman ekologikoa.

Mundu mailako, biztun-komunitateko eta maila pertsonaleko hizkuntza-aniztasunaren azterketa eta kudeaketa da *hizkuntza-ekologiaren* erdigunea.

Hizkuntza-iraunkortasuna da *helburua*, hau da, hizkuntza-aniztasuna ondorengo belaunaldien esku uzteko lan egitea: euskara, kitxua, eskoziera, nepalera...Munduan dauden 6.000 hizkuntza inguru ondorengo belaunaldien ahora eskainteko moduan jartzea.


Galdera gakoak honakoak dira:

- Nola egin aurre gaur egungo hizkuntza-beharrei etorkizuneko beharrei erantzuteko gaitasuna galdu gabe?
- Egungo gizarteak eleaniztasuna behar du (indibiduala eta soziala). Zer egin eleaniztasuna tokian tokiko hizkuntzen kalteko ez izateko?
- Nola egin etorkizuneko belaunaldiek, gutxienez, gaurko hizkuntza-aniztasunaren aukera izan dezaten?

Ekologiak garatu eta hedatu duen garapen iraunkorraren kontzeptuak gizakiaren alderdi guztiak biltzen ditu. Izan ere *iraunkortasunak* horixe planteatzen du: egungo beharrei erantzutea etorkizuneko planeta arriskuan jarri gabe, etorkizuneko beharrei erantzuteko gaitasuna galdu gabe.

Iraunkortasunak honakoa planteatzen du: *orain arteko bazkude neurrigabeak jarraitzen badu eta natura-ekosistemak suntsitzen jarraitzen badugu, landare- eta animalia-espezieak ez ezik, giza espeziea ere desagertu egingo da.*

Iraunkortasunaren diskurtsoak Brundtland txostena du abiapuntu (Nazio Batuak 1987). Haren definizioa honakoa da Bastardasen hitzetan: Gaur egungo beharrei erantzuteko modua, datozen belaunaldien beharrak asetzeko euren gaitasuna arriskuan jarri gabe (Bastardas 2005).



Beraz, ekologiaren eremuan honako bilakaera gertatu da: ingurumenaren ezagutza eta babestetik giza garapen eredu berrira, iraunkortasuna hiru esparrutako loturan dagoelako:

- Ingurumenaren zaintza.
- Garapen ekonomiko iraunkorra.
- Garapen soziala.

Interesgarria da arreta jartzea esparru horietako biren arteko intersekziotan definitzen diren kontzeptuetan: ingurumena eta gizartea biltzen den gunea: *bizigarria*; gizartea eta ekonomia biltzen dituen: *ekitate*; ingurumena eta ekonomia biltzen dituen: *ekingarria*, eta hiruren arteko intersekzioan dago *iraunkortasuna*.

ingurumena eta ekonomia biltzen dituen: *ekingarria*, eta hiruren arteko intersekzioan dago *iraunkortasuna*.

1 Hizkuntza(ar)en IRAUNKORTASUNaren ideiarekin loturiko diskurtso-elementuak

- 1) *Iraunkortasuna da hizkuntza-ekologiaren helburu nagusia; hizkuntzak hurrengo belaunaldietara igarotzeko baliabideak ziurtatzea.*
- 2) *Ondorengo belaunaldiek euren garapenerako aukeratzeko ahalmena izan behar dute.*
- 3) *Iraunkortasuna da ekologiaren gune zentrala: giza garapen iraunkorra eta ingurumenaren iraunkortasuna.*
- 4) *Garapen iraunkorrak ingurumena, ekonomia eta gizartea elkarlotzen ditu. Kultura-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna, eredu berriaren zutabe ezinbestekoak dira.*
- 5) *Tokian tokiko hizkuntzak beharrezkoak dira. Tokian tokiko komunitateen giza garapenak alderdi kulturalak garatu behar ditu; komunitatearen giza garapena oso mugatua izango da hizkuntza galtzen bada.*
- 6) *Aniztasuna ziurtatuz gizakiak eta komunitateek egokitzeko gaitasun handiagoa dute kanpoko aldaketen aurrean, aukeratzeko ahalmena gordetzen duelako.*
- 7) *Hizkuntza-galera handiko lurraldeetan gizarte egituratzean ere galera handiak gertatzen ari dira. Hizkuntza galtzean kultura galtzen da, eta etorkizuneko egokitze berrien aukerak ahultzen ari dira. .*
- 8) *Nazioarteko ekimenetan erakunde aldarrikatzaileak, sentiberatzaileak, babesleak (defendatzaileak) eta ekintzaileak*

arduratsuak dira hizkuntzaren iraunkortasunaren alde ekiten dutenean.

- 9) *Hizkuntzen iraunkortasunaren alde joatea historiaren alde joatea da*, justiziaren alde, ekitatearen alde, garapen iraunkorraren alde, mundu hobekoaren alde.
- 10) *Ekintzaille izan* behar du hizkuntza-ekologiak: ekologista izatetik hizkuntza-ekologistara... mundu mailako praktikan, komunitate mailan eta norbanakoaren praktika ekologistak abian jarritz.

2 XXI. MENDEKO BIDEAN BILAKAERA KONTZEPTUALA

XX. eta XXI. mendeen aldaketarekin batera ekologiak garatzen dituen ideia nagusiak hizkuntza-ekologian indartzen ari dira. Jauzi horren lagungarri dira nazioarteko iritzi publikoan gertatu diren hainbat kontzepturen bilakaera sozialak. Kontzeptu horietako batzuegan jarriko da arreta ondoren, hizkuntzen iraunkortasuna helburu hartuta.

2.1 ANIZTASUNA BABESTETIK GARATZERA

IDEIA OROKORRAK

Hizkuntza-ekologia hizkuntza-aniztasunaren azterketa eta ahuleziaren ezagutzetik abiatzen da XX. mendearen amaiera aldera: hizkuntza-aniztasunaren ezagutzatik hizkuntza-ekologiaren filosofia eta praktikara jauzi egiten du. Horretarako, hizkuntza-aniztasunaren ezagutza, zaintza, galera arrisku masiboa eta babestu beharra abiapuntu hartzen du, hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa iraunkorra proposatzeko eta giza (hiztun-) komunitateen arteko harreman iraunkorrera pasatzeko. Erreparatu behar da progresio berbera egin duela ekologiak ingurumenaren ezagutza eta babesetik giza garapen eredu berrirako jauzia eginez (goiko atalean azaldu bezala).

Nola uztartu, alde batetik, hizkuntza glotofagiakoen hedatze masiboa eta bestetik gizateriaren hizkuntza-aniztasunaren garapena? (Bastardas 2005:14)

Giza espeziearen hizkuntza-antolakuntza ereduak aldatu behar da, elebitasun edo eleaniztasun kolektiboaren hedatzeak norberaren hizkuntza alboratzea saihesteko (Bastardas 2005:17)

Eleaniztasunean elebitasunean baino arreta gehiago jartzen du hizkuntza-ekologiak hizkuntza-ukipen egoeretako kudeaketan, hala izaten baita errealtatea. Pertsonen eta taldeen eleaniztasuna onartzen du iraunkortasunak.

Elebitasun masiboa hizkuntza ordezkatzearen aurretiko fasea izan daiteke. Baina elebitasunak ez du balabeharrez hizkuntza bat desagertzea ekarri behar: beharrezko baldintza da baina ez nahikoa. Elebitasun edo eleaniztasun masiboak noiz gauzatzen du gizarte horretako hizkuntza ordezkatzea? Zein baldintzapean? (Bastardas 2005:22)

Bertako hizkuntza albo batera ez uztea da helburua, maila sozial edota maila pertsonalean.

Elebitasun masiboaren iraunkortasuna hizkuntza bata eta bestearen arteko funtzio-banaketaen balorazioaren baldintzapean dago: Lehenengoa txikiagoa bada elebitasun masiboa iraunkorra da, handiagoa bada, ordea, ez da iraunkorra izango eta bertako hizkuntza gutxitu eta denbora gutxian desagertu egingo da. (Bastardas 2005:22)

2.1 ANIZTASUNAREN inguruko diskurtso elementuak

- 11) *Aniztasuna da gaur egungo gizarteetako ezaugarri ohikoena. Erronka, aniztasunaren kudeaketa ekologikoa lortzea da.*
- 12) *Hizkuntza anizdunak izateko gai gara gizakiok eta gizarteak; hizkuntza berriak ikasteak ez dakar aurrekoa ahaztea.*
- 13) *Gehiagok gehitzen du, ez murrizten.* Hizkuntzak ikasteak burmuina eta nortasuna zabaltzen du, gizartean eta norbanakoan. Hizkuntza ikasteak eman egiten du, aberastu, zabaldu...
- 14) *Etorkizuneko pentsaera da hizkuntza-aniztasuna babestea eta garatzea; aldiz, elebakartasunaren (homogeneotasunaren) aldeko jarrera iraganekoa.*
- 15) *Hizkuntza-aniztasuna garatu behar da: ahuldutako hizkuntzari babesa emateaz gain, garatzeko tresnak eskaini behar zaizkio.*
- 16) *Hizkuntzen galtzeko arriskua mundu mailako fenomeno orokorra da. Horren aurrean erantzuna mundu mailako ekosisteman eragitea izan behar du.*
- 17) *Hizkuntzen galtzeko mundu mailako fenomeno orokorra hizkuntza gutxituetako galtzeko arriskuan islatzen da. Erantzuna hizkuntza gutxitu bakoitzaren ekosistema partikularretan eragitea da.*
- 18) *Sozialki nagusi diren hizkuntzek ez dituzte tokian tokiko hizkuntzak ordezkatu behar, aldiz, horien balioa sostengatu behar dute (euskara iraunkorra izan dadin gaztelania, frantsesa eta ingelesa ikasteak euskararen balioa sostengatu behar du).*

2.2 MUNDUA HEMEN; HAU MUNDUAN / MUNDUA GUREA; GUREA MUNDUKOA

IDEIA OROKORRAK

Munduko hizkuntza-aniztasuna gizateria osoaren ardura, erantzukizuna, eta ondare komuna da. Hizkuntzen galera-arrisku masiboa ez da hizkuntza galera banako guztien batuketa soil, mundu mailako fenomeno konektatua da. Beharrezkoa da, beraz, erantzuna ere hizkuntza banakoen baturen baino erantzun konektatua, elkarlotua izatea.

Hedatu beharreko ideia da aberastasuna bezala galera ere guztion onura eta erantzukizuna dela. Hau da: “*Hitz egiten ez duten hizkuntza ere nire ondare, nahia eta ardura ere bada. Hizkuntza guztiek (txikiak barne) aberastasuna ematen diote gizadi osoari*”.

Horregatik urruneko hizkuntza-galerak hurbilekoak ere hondatzen ditu: munduko hizkuntza-portaerak nire portaeretan eragina dute. Eta alderantziz, hurbileko hizkuntza-praktika ekologikoak mundu mailan eragina du. Gaur egungo mundu *globala* hizkuntza eta kulturen islatzen da zalantzarik gabe.

Horrela izanik, hizkuntza gutxituetako hiztunek badute eginkizun berezitua munduaren aurrean, tokian tokitik bertako hizkuntza mundura eskaintzekoa alegia.

2.2 Ikuspegi GLOKALaren inguruko diskurtso-elementuak

- 19) *Euskara iraunkor* egitea gure ardura da. Lortzen badugu munduko gainerako hiztun-komunitateentzat lagungarri izango da; euskara datozen belaunaldiari eskura jartzeko moduan garatzen bada munduko beste hizkuntza asko aktibatuko dira eta guztion aberastasunerako sinergiak sortuko ditu.
- 20) *Gurea ez den hizkuntza bat galtzen bada* guretzat -eta euskararentzat- galera eta garapenerako oztopo da. Aldiz, ahuldutako hizkuntza bat aurrera ateratzen bada gure garapenari bultzada emango dio.
- 21) *Zenbat eta hiztun-komunitate gehiago indarberritze proiektuetan inplikatu*, orduan eta efektu katalizatzaile handiagoa izango da, elkarrekin doazen komunitateen batura baino gehiago izango da.
- 22) *Globalen pentsatuz, lokalean ekin*; ekologiatik mailegatutako global kontzeptu emankorra aprobetxatu behar da.

2.3 NAZIOARTEKO PENTSAMENDU-JOERA

IDEIA OROKORRAK

Elebakartasunean ez da asetzen gaurko gizartea; *hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa* ezinbestekoa da, eta hizkuntza gutxitua arretaz hartzeko praktika gailendu behar da. Hau da hizkuntza handien hedapen glotofagikoa onartzea iraganeko praktika da; etorkizuneko joera, aldiz, hizkuntza-aniztasunari eustea.

Nazioarteko pentsamenduaren diskurtso orokorra aniztasunaren aldekoa da, behintzat esplizituki. Elebakartasunaren ideologiatik hizkuntza-aniztasuneranzko bidea garatzen ari da²; *hizkuntza bakarraren filosofia iraganekoa* da.

Ahuldutako hizkuntzen alde *politika aktiboak indarrean jartzeko* eta *neurriak hartzeko gomendioak* garatzen ari dira nazioartean. *Ereduaren aldaketa gerta dadin, ordea, erresistentziak* ere handiak dira: botere politiko eta ekonomikoengan eragiten dutelako. Gogora daiteke, alabaina, ekologiaren ikuspegitik ere, tamaina bereko erresistentziak ohikoak direla.

2.3 NAZIOARTEKO pentsamendu joeraren inguruko diskurtso-elementuak

- 23) *Hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa* gailentzen da gaur egungo nazioarteko gizartean; Aniztasunaren kudeaketa iraunkorra izan dadin hizkuntza gutxitua arretaz hartu behar du gizarteak; hurbileko hizkuntza gutxiakiko pertzepzioa eta harremana aldatzen ari da.
- 24) *Hizkuntza handien elebakartasunaren diskurtsoa* eta hedapen glotofagikoaren ordez hizkuntza-aniztasunari garapen berria gailentzen ari da. Aurrera begirako ikuspegiak ez du elebakartasuna babesten, aniztasuna baizik.

² Nazioarteko hainbat aldarrikapen bide horretatik doaz (UNESCO; eta beste batzuk). Hemen nazioarte deklarazioak: Kultur aniztasunaren UNESCOren deklarazio unibertsala, Bartzelonako Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala eta beste hainbat

- 25) *Botere nagusiengan erresistentziak* daude oraindik mundu mailako adituek eta filosofia aurrerakoienak hizkuntza-aniztasunaren aldeko mezuak igortzen dituzten arren.
- 26) *Hizkuntza-galeraren aurrean axolagabekeriak ez du zilegitasunik*: “ez zait axola hizkuntza jakin bat galtzea...” esatea ez da zuzena.
- 27) *Erresistentziak ordea* argudiatzean irudimenean eta operatibitatean saiakera sendoagoak bultzatuko ditu. Zergatik ez mailegatu praktika ekologistetatik?

2.4 JABETZA (USTE) IZATETIK EROALE, ERAMAILE, EMAILE IZATERA

IDEIA OROKORRAK

Euskararen biziraupenetik euskararen garapenera jauzi egitea proposatzen du hizkuntza-ekologiak. Irabazte kontzeptua egokiagoa dirudi hizkuntza berreskuratzea kontzeptua baino. Azken horrek “galdutakoaren bila joatea” irudikatzen du.

Biziberritzea, sendotzea, bizi-indartzea kontzeptua interesgarriagoa dirudi bizirautea baino. Azken hori ezinbestekoa izan arren. Ongizatea kontzeptua interesgarria da, disfrutatzea, berez izateko nahia, baita giza garapen eredu berriaren baitan ere.

2.4 Jabetza/eroale/emaile izaerako diskurtso-elementuak

- 28) *Hizkuntza ez da gurea*, gu gara hizkuntza-maizterrak, hizkuntza jaso, eraldatu eta eman behar dugulako.
- 29) *Hizkuntzak erabiltzeko eta emateko dira*: ondokoei, komunitatera etorritakoei eta oinordekoei. Ematea transmititzea da.
- 30) *Hizkuntza-ekologiaren helburua iraunkortasuna da; iraunkortasuna hizkuntza-transmisioan gauzatzen da: transmisioa hizkuntza ematea da.*
- 31) *Euskararen etorkizuna iraganeko esperientzian oinarritzen da*; izanak izatea eta izate nahia ematen du.
- 32) *Euskararen etorkizuna ziurtatzeko non hitz egitea nahi den adostea* are garrantzia handiagoa du, eta euren erabakitze gaitasuna ziurtatzea ondorengo belaunaldikoei.
- 33) *Hizkuntzarentzat irabazte kontzeptua* egokiagoa dirudi hizkuntza berreskuratze kontzeptua baino. Horrela, inoiz euskara izan ez dutenak errazago hurbilduko dira.
- 34) *Bertako berariazko hizkuntza kontzeptua* erreal da; *hertar guztien hizkuntza* erreal izatea lortu behar da: garenak baino gehiago bilduko gara.
- 35) *Izatearen barrotasuna sentitu*, erakutsi, eskaini eta partekatzeko gonbitea egitea da erronka.

3 HIZKUNTZA EKOLOGIAREN ANALITIKA

3.1 EKOSISTEMA/HABITAT KONZEPETUA

IDEIA OROKORRAK

Hizkuntzaren ekologia zientzia den heinean errealitatearen **deskripzioa** egiten saiatzen da (hizkuntza(ar)en banaketa, ugaritasuna/aniztasuna eta ingurunearekiko harremanak), **azalpenak** ematen (arrazoiak), eta **proiektzioak** (aurreikuspena) egiten.

- *Bioaniztasunaren eta kultura- eta hizkuntza-aniztasunaren arteko lotura estuak* dira oso. Arrazoi antzekoak tarteko: isolamendu genetikoak, bizitzarako espezializazioak eta propietate *autopoietikoa* (autoorganizatzailea).
- Hizkuntza-aniztasunaren galtzeko arriskua oso handia da, proportzionalki bioaniztasunarena baino askoz handiagoa.
- Galera horren arrazoia gizakiaren portaeran dago, ez hizkuntzaren barne ezaugarrietan (oro har, galera ekologikoarekin gertatzen den antzera).
- Mundu mailako erantzunak, hiztun-komunitatekoak eta norbanakoaren hizkuntza-praktika ekologikoak proposatzen ditu *hizkuntza-ekologiak*, ekologismoak egiten duen bezala.

Hizkuntza-errealitatearen deskripzioa egiteko ekologiak eskainitako ekosistema edo habitat kontzeptua baliatzen du. *Ekosistema* hizkuntzaren iraupenerako ezinbesteko elementuen harreman-sarea da Hizkuntza-ekologiaren kasuan ekosistema kontzeptuak bi adiera badi: a) Hizkuntzaren ekosistema eta b) hizkuntzen arteko harreman *ekosistemikoa*.

Hizkuntzaren ekosistema hizkuntza-komunitatean dago. Komunitatean hizkuntzak betetzen dituen funtzioen banaketan islatzen da. Zer funtzio betetzen du hiztun-komunitatean? Non eta nola hitz egiten da?

Ekosistema aztertzeko modu bat izan daiteke *Bizitasun etnolinguistikokoaren* teoriaren arabera (Giles et al., 1977), hau da, elementu demografioak, babes ofizialekoak eta estatusari eragiten diotenak kontuan hartuz, ondoren transmisioari buruzko azalpenak emango dituen. *UNESCOren Bizitasun etnolinguistikokoaren* ereduak (Unesco 2003a) ekosistemaren beste irudi erabilgarri bat eskaintzen du.

Ekosistemaren arabera lehentasunezko funtzioak ziurtatu behar dira, transmisioa eragin/sendotuko dutenak, izan ere hizkuntzaren *transmisioan* gauzatzen da: a) belaunez belaunekoan; b) hedatze sozialaren bitartez gertatzen denean.

Elementu nagusiak eta gainerako elementuak bereizi egiten ditu ekosistemak, eta horrela, *hizkuntza iraunkorra izan dadin baren habitata* ziurtatu behar da. *Hizkuntzaren ekosistema soziokulturala* da zaindu

beharrekoa, funtzioen arteko banaketa, bere produkzioa eta erreprodukzioa ziurtatuko duena (Bastardas 2005:20).

Hizkuntzaren ekosistemaren lebertasunak markatu behar dira testuinguru soziolinguistikoaren arabera. Alderdi sozialak, politikoak, ekonomikoak eta kulturalak biltzen dituen ekosistema zaindu behar da. Enpresak, merkataritza, gizarte erakundeak, komunikabideak... (Bastardas 2005:27)

Hizkuntza/hiztuna/hiztun komunitatea barremantzen duen hirukia kontuan hartu behar da. Eta bertan, hiztun(ar)en alderdi psikologikoetan erreparatu.

Mikrosistema, mesosistema eta ekosistema proposamena hizkuntzaren ekosistemara hurbiltzeko beste modu bat ere izan daiteke: Mikrosistema: pertsonak parte hartzen duen ingurune hurbila izango da (familia, eskola, lantokia...); Mesosistema: ingurune hurbil horien arteko erlazioak egituratzen dituen sistema izango da; Ekosistema: pertsonak zuzenean parte hartzen ez duen ingurunea baina berarengan zeharka eragiten duten elementuek osatzen duten sistema izango da (Marko 2011b, 61or.).

3.1 EKOSISTEMA/HABITAT kontzeptuaren inguruko diskurtso-elementuak

- 36) *Ekosistema* hizkuntzak garatzeko beharrezko diren inguruneak dira. Ingurune egokirik gabe hizkuntzak ahuldu eta ordezkatuak izateko arriskuan jartzen dira.
- 37) *Gizartean dago hizkuntzaren ekosistema*; hizkuntzaren ingurunea gizartea da. *Euskararen ekosistema Euskal Herriko* gizartean dago.
- 38) *Hizkuntza(aren) habitata* osasuntsu egoteko -iraunkorra izan dadin- gutxieneko funtzioak bete behar ditu.
- 39) *Gizarteak* ematen dizkio hizkuntza ahulduari etorkizuneko funtzio ezinbestekoak: gizartearen identitatea, gizartearen kultura, gizartearen komunikazio lokalari eta nazionalari loturikoak, familiakoa, pertsonala...
- 40) *Gizakiak ere bere funtzioak ematen dizkio hizkuntzari*: gizarteak eta gizabanakoek emaniko funtzioek ez dute, ezinbestean, berdinak izan beharrik; norbanakoak gizartearen joeraz gain erabaki propioak hartzeko gai da.
- 41) *Ekosistemari abalirik eta modu osatuenean begiratu behar zaio*. Indarguneak eta ahulguneak sistema osoak dira: era berean alderdi batean ekiten bazaio ondorioa sistema osoan antz emango da.
- 42) *Babes ofizialeko funtzio soziolinguistikoak oinarritzekoak dira*, abiapuntuzkoak. Botere publikoek euren ardura hartu behar dute hizkuntza ahulduen defentsan eta garapenean. Alderdi horren ahuleziak sistema osoa ahultzen du.
- 43) *Gizartearen borondatean dago babes ofizialaren abiapuntua*, adostasun politikoan. Gizarteari bere erantzukizuna eta inplikazioa eskatzea zilegi da.
- 44) *Gizarte eragileek ere hizkuntzaren estatusa garatzen dute*. Gizarte eragileei bere erantzukizuna eta inplikazioa eskatzea zilegi da.
- 45) *Komunikazio-bideak* sortu eta hedatu behar dira. *Gizarteko hedabideek euren gizarte arduraren jabe izan behar dute*. Hizkuntza-ekologiaren planteamendua onartzen badute gizartearen etorkizunari begirako proiektuaren parte izan daitezke. Komunikabideei gizarte erantzukizuna eskatzea zilegi da.
- 46) *Gizabanakoaren praktikak eta hizkuntzari emaniko funtzioek hizkuntzaren estatusan eragiten dute*. Gizabanakoari erantzukizuna eta inplikazioa eskatzea zilegi da.

- 47) *Gizarteak hizkuntza-kudeaketa ekologikoa* etorkizuneko proiektu modura hartu behar du, datozen belaunaldiek eskura (ahora) izan dezaten landuko dena.
- 48) *Euskarak espazioa zurtatu behar du* nazioarteko hizkuntzarekin, gaztelania/frantsesarekin eta presente dauden gainerako hizkuntzekin kontaktuan dagoelako.
- 49) *Ekoi-zpen kulturealean...auto-irudia* hobetzea eta gainerakoei (munduari) erakustea etorkizuneko jarrera da. Kulturak bereziki balioan jartzen du tokian tokitik unibertsaltasunerako egindako saltoa: erakargarria egiten duena.
- 50) *Printzipio etikoen arabera* gizarte osoaren inplikazioa behar da: hiztun diren eta ez direnenena, euren buruak hiztun-komunitatearen parte ikusten dutenenena eta, hala izan gabe, gizartearen parte direnena.
- 51) *Gizarte mailako babes eta garapen neurriak hartzea* zilegi izateaz gain, beharrezkoa ere bada, ahuldutako hizkuntzaren alde.

3.2 EKOSISTEMAREN ALDAGAI SISTEMIKOAK

IDEIA OROKORRAK

Hizkuntzaren funtzioak aldagai sozio/politikoaren, demografikoaren, kulturalen arabera sortzen/esleitzen dira, gizakiongan eta komunitateengan eragiten duten ondorio psikologiko eta sozialekin batera. Ekosisteman desoreka handiegia badago hizkuntzaren transmisioan eragingo du (barne eta kanpo transmisioan). *Ekosistemaren* aldagai batean eraginez gero, ondorioa sistema osoan sentituko da.

Erabaki beharreko ideia nagusia honakoa da: *Gizarte bizitzan, zer neurrik zurtatzen du ongien ahuldutako hizkuntzaren belanuez belaneko transmisioa?* (Mikel Zalbide 2013). Beste era batera esanda, ekosistemaren zein aldagaitan eragin behar da lehenetsuz sistema osoak hobekien erantzun dezan?

Ekosistema partzialak planteatu daitezke irizpide soziolinguistikoaren arabera. *Zer funtzio banaketa* aurreikusi daitezke? *Ingurune soziolinguistikoaren arabera* eredu ekosistemiko desberdinak garatu dira, (des)oreka desberdinak: desberdintasun horien araberako lehenetsuzko funtzioak bereizi daitezke? *Hizkuntza gutxituko eta nagusitako hiztunen inplikazioa* eskatzen du; gizarte osoaren inplikazioa, ezinbestean.

Euskarak lehenetsuzko funtzioak dituen guneak³

Funtzio lehenetsiak izango dituen guneak garatzea garrantzizkoa izan daiteke hizkuntza gutxituarentzat. *Negoziazio baten eskutik etorri behar da lehenetsitako funtzioa*, ezinbestez. Baina *balio etikoen bidetik* (ondoren azalduko diren printzipio etikoak aplikatuz) ezinbesteko aldaketaren premia zabaldu behar da.

Funtzio lehenetsitako guneak eraiki daitezke ikuspegi etikotik abiatuta (Sarasua 2011, 136). Hainbat esparrutan funtzio lehenetsiak izango dituzten guneak izendatu daitezke adibidez udalerrri mailan, *arnasguneak* deiturikoak. Era berean alderdi sozio-kulturealean ere funtzio lehenetsitako guneak eraiki

³ *Hegemonia-gune* kontzeptuaren ordez proposatzen da honakoa. Beste hau ere erabil daiteke: **euskara lehenetsuzko hizkuntza den guneak**. Ez da beste honekin nahasi behar: **euskararen lehenetsuzko funtzio-guneak**.

daitezke ikastetxeetan, lantegietan, elkartetan, familietan, lagunartean, koadriletan. Hori posible izango da bereziki demografikoki euskal hiztun-kopurua nabarmen gehiengo den guneetan.

Immigrazio-hizkuntzen kudeaketa ekologikoaz bi ideia azpimarra daitezke: bizikidetzaren printzipio adostuen bitartez talde (edo pertsona) migratzailearen adaptazioari zor zaion printzipioa oinarri hartuta, migratzailearen kultura-ezaugarrien iraunkortasunaren askatasun pertsonalaren errespetuzko printzipioa (Bastardas 2005:53) present izan behar da.

3.2 Ekosistemaren azpi-ekosistemaren inguruko aldagai diskurtso-elementuak

- 52) *Azpi-ekosistemak kontuan hartu behar dira*, ingurune soziolinguistiko desberdinetan eratzen direnak.
- 53) *Azpi-ekosistemak kontuan hartu behar dira*, euskarari lehentasunezko hizkuntza-funtzioak emanez gero.
- 54) *Azpi-ekosistema horietan hizkuntzaren iraunkortasuna garatzeko* neurriak desberdinak izango dira. Behin helburua adostuz gero, egoera soziolinguistiko desberdinetan neurri desberdinak hartzea erraz ulertuko da.
- 55) *Euskararen lehentasunezko funtzioak izango dituen guneak izendatzeko zilegitasuna badago* Azpi-ekosistemen ezagugarrien arabera: *arnasgune* kontzeptua.
- 56) *Arnasgune naturalak babestea zilegi da*: a) berezko duten hizkuntza-transmisio naturalak hizkuntzaren ekosistema osoan ondorio oso positiboak dituelako, eta b) gutxiengoaren berezko eragin-guneak zaintzea zilegi delako.
- 57) *Arnasgune funtzionalak eraikitzea zilegi da*: a) hizkuntza-transmisioan hizkuntzaren ekosistema osoan ondorio oso positiboak dituelako, eta b) gutxiengoaren berezko eragin-guneak zaintzea zilegi delako.
- 58) *Neurriak zein printzipio etikoren arabera hartzen diren* komunikatzeari eta azaltzeari arreta berezia jarri behar zaio; horrek sorrarazi dezakeelako aldeko sinergia eta konplizitatea, eta, aldi berean, ekidin dezakeelako kontrako jarrera pertsonalak eta sozialak.
- 59) *Gizakiaren alderdi psikologikoak eta giza borondatearenak* ondo kontuan izan behar dira, neurri sozialak hartzerakoan ondorio pertsonalak ere eragiten direlako.
- 60) *Nagusia den hizkuntzetako biztunengan* ez luke arrisku sentimendurik sortu behar hizkuntza gutxituaren aldeko neurriak hartzea, hainbat esparrutan funtzio eksklusiboak esleitzea; akaso, konplizitatea..., hori eskatu beharko da. *Nagusiengoaren espazio eksklusibo propioak oso ugariak dira*. Beraz, neurri horiek hartzea sustatu beharko litzatekeen.
- 61) *Arnasgune naturaletan: euskarak lehentasuneako funtzioak ditu*. Nolanahi ere, arreta jarri behar da hizkuntzaren funtzio berriei, berrituei; *Funtzio ofiziala nagusiki nagusitzen den eremutan zein funtzio sendotzea komeni da?* Taldekoa, komunitatekoa... *Identitate funtzioa eta familiarra* garatuta dauden eremu soziolinguistikoetan funtzio profesionala, kulturala, soziala sendotzea komeni da.
- 62) *Arnasgune funtzionalaren adibide ederra eskola da*. *Hizkuntzaren ekosisteman duen lehentasunezko lekua jabetzen da*. Hiztuna eta komunitatearen arteko lotura (hartu-eman) lantzeko, aberasteko eta balioan jartzeko aukera ezin hobea izango du.
- 63) *Eskolak hizkuntzen gaineko irakurketa eta irakaskuntza kritikoa* egin dezake: hizkuntza nagusien irakaskuntzaz gain, bertako hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko tresnak eskainiz eta gizartean presente dauden gainerako hizkuntzei aitortza eta euren lekua egiteko eskubidea dutela erakutsiz. Hizkuntza-


ekologiaren bidetik gizaki justuagoak hezteko aukera izango du.

- 64) *Lan-esparru desberdinak hizkuntza(ar)en azpi-ekosistemak dira.* Enpresa-, lan-mundua gizarte-erantzukizunarekin eta balio sozial erantsiarekin lotuta hizkuntzaren garapen iraunkorrarekin bat egin dezake.
- 65) *Ikuspegi ekonomikotik ere* enpresak, lan-munduak hobekuntzak besterik ez ditu izango hizkuntza kudeaketa ekologikoa planteatzen badu; zerbitzu hobea eskainiz, onura ekonomikoak jasoko ditu.
- 66) *Nazioartean ingelesez eros daiteke* baina saldu bertako hizkuntzan saldu behar da, eta nazioartean beste hizkuntzak ere hitz egiten dira. *Bertan euskaldunenganako bezeroenganako* politika hobea izango da.

3.3 INGURUMENA/GIZAKIA/GIZARTEA

IDEIA OROKORRAK

Hizkuntzaren ekosistemak hizkuntza, hiztuna eta komunitatea biltzen ditu:



Hizkuntzaren izateko arrazoia harreman hirukoitz horretan dago, hizkuntza/hiztuna/hiztun-komunitatearen arteko hirukian. Zenbat eta lotuago izan harreman hori (hartu eta eman) orduan eta sendoagoa, egokiagoa, moldagarriagoa, erakargarriagoa, baliagarriagoa... izango da hiztunarentzat eta gizartearentzat. Harreman hori ahula bada, hizkuntzaren iraunkortasuna ahula izango da

3.3 Hizkuntza/Hiztuna/Hiztun-komunitatea hirukiaren inguruko diskurtso-elementuak

- 67) *Hizkuntza giza taldearen garapenaren isla da, izatearena, historiarena, ezagutzarena, kulturarena, ingurumenari egokitzeko gaitasunarena.*
- 68) *Hizkuntza/Hiztuna/Hiztun-komunitatea: Hiru elementuren arteko harremana hartu eta emanikoa da: eskaintza bat.*
- 69) *Eskaintza eta harreman* hizkuntzaren baitan hazi denari eta hizkuntzara irabazi denari egiten zaio.
- 70) *Hizkuntzak hiztunari* izatea eta izana ematen dio; mundu-ikuskerara bat.
- 71) *Hiztunak hizkuntza* ulertzen, erabiltzen, moldatzen, egokitzen, garatzen du; hizkuntzari ematen dio.
- 72) *Hizkuntzak komunitateari* nortasuna, munduko ikuskera, historiaren ezagutza, munduan lekua ematen dio.
- 73) *Komunitateak hizkuntzari* aitortza, egokitzapena, izateko borondatea ematen dio.
- 74) *Hiztunak komunitateari* izatea ematen dio.
- 75) *Komunitateak hiztuna* taldean integratzen, babesten, garatzen eta proiektatzen du.

4 BALIO ETIKOAK HOBESTEA

IDEIA OROKORRAK

Hizkuntza-ekologiak hasiera beretik izan du munduko hizkuntzak galtzeko arrisku masiboaren aurrean erantzuteko borondatea. Zientziak emaniko ezagutza iragazki etikotik igarotzen da, ondoren, praktikara jauzi egiteko. Hau da, hizkuntza-aniztasunaren galeraren aurrean, hizkuntza bakoitzaren galtzeko arriskuaren aurrean, posizionamendu etiko bat proposatzen du. Balio etikoek gizarte osoari eragiten diote, bai egoera ahulduan dauden hizkuntzetako hiztunei eta baita hizkuntza hedatzaile eta sozialki/politikoki nagusi diren hizkuntzetako hiztunei ere. Eragin unibertsal horretan du bere indargunerik garrantzikoena *hizkuntza-ekologiaren filosofia*.

Balio etikoetan oinarrituriko praktika ekologikoak lehenetsi behar dira: Hizkuntza-ekologiaren balio etiko oinarrikoak honakoak dira:

1. *Hizkuntza-aniztasunaren balio unibertsala, eta, beraz, defentsa unibertsala.*
2. *Berdintasunaren printzipioa.*
3. *Elkartasunaren printzipioa/ Zuburtziaren printzipioa/ Gizarte erantzukizunaren printzipioa/ Belaunaldiaren arteko ekitatearen printzipioa.*
4. *Subsidiaritate printzipioa.*

4.1 HIZKUNTZA-ANIZTASUNAREN BALIO UNIBERTSALAREN PRINTZPIOA

IDEIA OROKORRAK

Hizkuntza-aniztasunak *balio unibertsala* du; gizakiaren kreatibitatearen adierazpide da, *gizakiaren etorkizuna bermatzeko* ezaugarria da, etorkizuneko gizarteak erronka berriei egokitzeko aukerak ziurtatuko dituena. *Hizkuntza- eta kultura-aniztasuna ezinbestekoak dira giza espeziearen iraupenerako*, bioaniztasunaren kasuan ezinbestekoa den bezala. Hau da, *kultura-aniztasunak bioaniztasunak adinako onurak dakar*. Kultura-aniztasunak [eta hizkuntza-aniztasunak] giza esperientzia osoa, nahiak, desioak eta jokabideak biltzen ditu.

Gizateria hizkuntza-dibertsitatea defendatzeko prest egon behar du biodibertsitatearen alde dagoen bezala. Eta mundu mailako hizkuntza-aniztasunaren defentsa hizkuntza partikularren defentsan islatu behar du ezinbestean.

Hizkuntza-aniztasuna *babestu* behar da. Ez dago arrazoirik pentsatzeko hizkuntza desberdinen artean batzuk besteak baino hobeak, interesgarriagoak, egokiagoak direnik. Gaur egun ere, hizkuntza guztiek dute irauteko arrazoia, baita sozialki ahulagoak direnak, euren hizkuntzaren balioa erakutsiz normaltasunez erabiltzeko eta gainerakoei emateko. Hizkuntza nagusienetakoen hiztunengan

eragina lortu behar da, euren ardura ere badelako hizkuntza guztien iraunkortasuna, batez ere, hurbilean dauden hizkuntza gutxituetakoenganakoa.

Hizkuntza bakarraren filosofiak ez du gaurkotasunik, eta hurbileko hizkuntza gutxiekiko pertzepzioa eta harremana aldatzen ari da. Hizkuntza handien hedapen glotofagikoa vs. hizkuntza-aniztasunari eustean eta bere garapenari eustea.

Hizkuntza-aniztasuna, gainera, gure gizarteetan presente dagoen eleaniztasun hazkorrean nabari da: elebakartasun edo elebitasunetik hizkuntza-aniztasunera egin da jauzia. Gaurko gizarteak ez da asetzen elebakartasunean, eleanizdunak diren hiztunak osatutako gizarte eleanitzak eraikitzen ari dira. Eta testu-inguru horretan garatu behar da hizkuntza gutxitua arretaz hartuko duen *hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa* iraunkorra.

4.1 Aniztasunaren balio unibertsalaren inguruko diskurtso-elementuak

- 76) *Hizkuntza-aniztasunarena gizateriaren aberastasun handienetakoa da, eta hala aitortuko zaio berandu baino lehen.*
- 77) *Gizakia hizkuntza-aniztasunaren galeraren aurrean uskur agertzen da. Bioaniztasunaren galeraren aurrean kezkatzen hasia da jadanik, zerk bereizten ditu biak?.*
- 78) *Eredu ekologikoaren aldeko ekimenetan hizkuntza-aniztasuna integratzea ezinbestekoa da, kultura-aniztasuna, bioaniztasuna eta giza garapena elkarrekin doazelako. Erantzuna, beraz, elkarrekin joan behar du.*
- 79) *XXI. mendean ez dago benetako ekologiarik hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzen ez badu.*
- 80) *Hizkuntza-aniztasuna garatu dadin baldintzak eskaini behar dira, babesteaz harago.*
- 81) *Abuldutako hizkuntzetako hiztunak eta komunitateak biziberritze-proiektuan aktibatu behar ditu printzipio etiko honek.*
- 82) *Hizkuntza nagusietako hiztunak eta komunitateak ere aktibatu behar ditu eurak ere euren ondareaz jabetu behar dutelako, eta ardura etikoa dutelako.*
- 83) *Eleaniztasunak etorkizuneko gizateriaren erronkei aurre egiteko aukera aproposak eskaintzen ditu.*
- 84) *Erronka hizkuntza gutxituen garapena ziurtatuz gizarte eta giza banako eleanitzak eraikitzea da.*
- 85) *Hizkuntza txikiak egokitzeko, giza taldeei erantzuteko eta irauteko aukera gehiago dute hizkuntza-aniztasunaren bidetik.*

4.2 BERDINTASUNAREN PRINTZIOA

IDEIA OROKORRAK

Berdintasunaren printzipioari *ekitatearen* printzipioa edota *gutxiengoaren aldeko* balio etikoak lotzen zaizkio.

Albert Bastardasen hitzetan (Bastardas 2005: 65) hizkuntz(ar)en kasuan *berdintasunaren printzipioak* bermatu behar du egoera desberdinetan dauden hizkuntzak aukera berdinak izan ditzaten. Horretarako neurri orekatzaileak hartzea beharrezko eta zilegi da.

Esan daiteke *egoera desberdinean dauden hizkuntzak berdin tratatzea ez da berdintasuna, bidegabekeria baizik, injustizia. Ekitatearen bila* joan behar da, aukera berdintasunera.

Gure artean ere badira printzipio honen inguruan ekarpenak egin dituzten adituak. Aipa dezagun horien artean Sánchez Carrión *Txepetx* haren bi aipu gogora ekarriz::

“... la función a la que se adscribe la lengua minorizada es, precisamente, la de promover la igualdad entre las lenguas, la de hacerla portadora de un Discurso de Igualdad, innovador, que abra un nuevo tiempo histórico en el que se garantice la plenitud funcional y la autorreproducción de cualesquiera comunidad lingüística ...” (Sanchez Carrion., 281. or. Zalbide eta Erixez aipatua.)

Berdintasunaren diskurtsotik aritzeak ondorio nabarmenak ditu defendatzen diren helburuetan eta aldameneko hizkuntzekin, hizkuntza nagusiak barne, ezarri nahi den harreman ereduak: kontua ez da euskara botere hizkuntza bihurtzea, boterea, gaur egun ulertzen den bezala, patologia kaltegarria besterik ez baita (Sanchez Carrion 187. or.).

Berdintasunaren printzipioa betetzeko, eta ekitatearen bila, ezinbesteko baldintza da *hizkuntzen arteko hierarkiak* desaktibatea. Jakina, horrek hizkuntza hedatzaileen aurrean konfliktua ekar dezake, euren balio sinbolikoen ahultzea lekarkeelako (Bastardas 2005.60). Baina eurek ere ulertu behar dute *hizkuntza guztiek berezko balio ber-bera dutela*. Soziki desberdintasunak baldin badaude ez dela berezko ezaugarriengatik, baizik eta hizkuntza-funtzio banaketa hierarkikoa gertatu delako. Giza taldeen artean dauden desberdintasunak islatzen dituzte hizkuntza-hierarkia horiek.

Beraz, *egoera ahulagoan dagoen orok neurri orekatzaileak* behar ditu aukera berdintasuna izango badu, baita hizkuntzen kasuan ere. XXI. mendean norbaitek sinets dezake egoera ahulean duden hizkuntzak, kulturak, giza taldeak, inguruneak, animaliak, inolako neurri orekatzailearik gabe etorkizunik izango dutenik?

Egoera sozial desberdinetan dauden hizkuntzek neurri desberdinak behar dituzte. Neurriak: babes neurriak, babes-guneak eraikitzea edota *neurri orekatzaileak hartzea zilegi da*. Gutxiengoa den taldeak, kolektiboak bere garapen eredu propioak izateko eta euren bizipen propioak garatzeko eskubidea dute. Ezin da ahaztu gizarte demokratikoaren lorpen garrantzizkoenetakoa dela gehiengoaren iritzia, pentsaera eta portaera ez izatea gutxiengoarentzat debeku-iturri.

4.2 BERDINTASUNAREN printzipioaren inguruko diskurtso-elementuak

- 86) *Berdintasunaren printzipioa: Desberdin dagoena berdin tratatzea ez da berdintasuna, injustizia baizik. Aukera berdineko egoerara, ekitate-egoerara heltzeko neurriak hartu behar dira.*
- 87) *Hizkuntza guztietako komunitateek euren hizkuntza erabiltzeko aukera berdina izan beharko lituzkete.*
- 88) *Aukera berdintasunera heltzeko neurri orekatzaileak hartzea zilegi eta beharrezkoa da.*
- 89) *Ez dago berezko hizkuntza handiagorik, hobeagorik, zailagorik, ederragorik, egokiagorik..., aurreiritzi eta plangintza jakinen emaitza da hizkuntzen hierarkizazioa.*
- 90) *Hizkuntzen arteko desberdintasun sozialek gizarte desberdintasunak islatzen dituzte.*
- 91) *Gutxiengoaren ideologiak eta elkartasunean oinarritutakoak goranzko joeran daude, ideologia hegemonikoak nagusi diren arren. Baita hizkuntzen kasuan ere.*
- 92) *Hizkuntza guztiak egokitu daitezke egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko, komunitateak hala nahi izanez gero, eta aukera eta baliabideak eskainiz gero.*

4.3 SUBSIDIARITATE PRINTZPIOA

IDEIA OROKORRAK

Subsidiaritate printzipioa hizkuntza-arloan aplikatuz, Albert Bastardasen (2005:24)ren arabera honako ideian zehazten da: **Tokian tokiko hizkuntzak egin dezakeena ez dezala globalago batek egin.** *Hizkuntza hegemonikoen abusuak praktikak ekiditeko* baliagarria da subsidiaritate printzipioan oinarritutako hizkuntza-kudeaketa. *Hizkuntza-ukipeneko egoera guztietan aplikagarria* eta oso emankorra da. Nazioarteko hizkuntza, hizkuntza sozialki (eta politikoki) nagusia, gutxitutako hizkuntza, immigrazioko hizkuntzak, aldaera geografikoa, estandarra... hizkuntzen funtzioen banaketaz aritzerakoan kontuan hartzeko printzipioa da.

4.3 SUBSIDIARITATE printzipioaren inguruko diskurtso-elementuak

- 93) *Hurbileko hizkuntzak, tokian tokikoak, egin dezakeena ez dezala hizkuntza hedatzaileak, handiagoak, egin.* Hurbileko hizkuntza txikiak bete ditzakeen funtzioak hizkuntza horretarako gorde, hizkuntza handiak funtzio horiek jan ez ditzan.
- 94) *Hizkuntza nagusienetako konplizitate bilatzea ezinbestekoa da, horretarako komunikazioa ziurtatuko da.*
- 95) *Gizarte mailako eragina eta maila pertsonalekoak: biografia linguistikoaren kontzientzia* hartuz gero hizkuntza-ekologiaren iturria balioan jarriko da.

4.4 ELKARTASUNAREN PRINTZIOA / ZUHURTZIAREN PRINTZIOA / GIZARTE ERANTZUKIZUNAREN PRINTZIOA / BELAUNALDIAREN ARTEKO EKITATEAREN PRINTZIOA

IDEIA OROKORRAK

Zuhurtziaren printzipioa (The precautionary principle) (Roig et al. 2011, 41). Printzipio honi, kulturaren kudeaketari lotzen zaion arren, hemen hizkuntza-kudeaketaren ikuspegi ekologikoari lotu diogu. Erabakiak hartu aurretik, hizkuntzari dagozkion galera atzeraezinezko ondorioak izango ez dituela ziurtatu behar da. Bioaniztasuna edota ingurumena babestu edo kaltetutako errekupeazio-planetan gizabanakoaren gaineko askatasun-mugak onartzen dira.

Zuhurtziaren printzipioak eta belaunaldien arteko ekitatearen printzipioak nagusitu beharko lirateke hizkuntzaren arloan ekologiak bereganatu diten modu berean.

Belaunaldien arteko ekitatearen printzipioak gaur egungo hizkuntza-arloko erabakiak hartzeko orduan, datozen belaunaldientzat hizkuntza-baliabideen eta gaitasunean galera ekarriko ez duela ziurtatzen duen printzipioa da. Ikuspegi luzeko jarrera gailentzen da printzipio honen arabera: erabakiak hartzeko orduan garrantzi handia du datozen belaunaldiengan erabaki horiek izango duten ondorioen balorazioak. Giza garapen iraunkorreko neurriak kultura eta hizkuntza-esparruan ere erabili behar dira (Roig et al. 2011, 40).

Komunitateak badu hizkuntzarekiko ere erantzukizun kolektibo bat: *komunitatearen gizarte erantzukizuna* aplikagarria da baita hizkuntzari dagokionean ere. (Marko 2011, 59 or). Ardura eta konpromiso sozialak eskubide pertsonalen gainetik daude.

4.3 ELKARTASUNAREN printzipioaren inguruko diskurtso-elementuak

- 96) *Komunitate gutxituen arteko elkartasun-mugimenduak* ugaritzen ari dira eta gehiago ugarituko dira aurrerantzean.
- 97) *Elkartasunaren printzipioaren arabera* ukipenezko hizkuntzen arteko funtzio banaketa errazago erabakitzen da: gutxiengoaren arteko harremanak errazten dira, eta gehiengoaren ere etikoki eragiten diete.
- 98) *Elkartasunaren erronka da abuldukoaren iraupena ziurtatzea* da aniztasunaren baitan. *Besteenganako errespetuaz norberarenaren aldarria*, gonbitea, ezagutzan sakontzeko nahia, eta sozialki ahulago dauden hizkuntzenganako errespetua eta jakin-mina erakustea.
- 99) *Hizkuntza-iraunkortasunaren proiektuan inplikatzeta* da helburua. Aniztasunaren iraunkortasunean geu eta besteak inplikatzeta, printzipio etikoen aplikazioaren bitartez: aniztasuna, berdintasuna, ekitatea lortzea.
- 100) *Zuhurtziaren printzipioaren arabera* kanpokoaren liluraren aurrean tokian tokiko garapena sustatzea.



AMAIERA-OHARRA

Sarreran esan bezala, dokumentu honek proiektuaren lehen faseko eduki-txostena bildu du, hau da, udalerrri mailan hizkuntza-komunitatearen trinkotzea xede hartuta, *hizkuntza-ekologiaren* ideia nagusiak bildu eta justifikatu ditu, eta ideia horiek islatzeko diskurtso-elementuak. Beraz, *diskurtso mailan abalirik eta erabilera zuzenena izateko ideia-bilketa* egin da, eta *ideia horien diskurtso-elementuak* eskaini.

Kontuan izan behar da, honakoa, proiektuaren lehen fasea betetzeko urratsa izan dela, eta hemendik aurrera herriz herri egingo den esku-hartze prozesuari egokitzeko oinarritzko materiala dela. Testuinguru horretan hartzea komeni da, beraz, hemengo edukia, etengabe garatzen joango dena, alegia.

Dikoma egiten ari garenok hizkuntzen iraunkortasunaren alde lanean egiten jarraitzeko gonbidapena zabaltzen duelako, hizkuntza-ekologiaren diskurtsoaren lanketa baliagarria izan dadin espero dugu. Gizartean ekologiaren filosofiak eta diskurtsoak lortu duen arrakasta kontuan izanda, pentsa daiteke hizkuntzaren kasuan parekatze horiek onuragarriak izango dela.

BIBLIOGRAFIA AIPAMENAK

- Bastardas i Boada, Albert 2011. "Ekologiatik hizkuntza-iraunkortasuna: marko teorikotik proposamen praktikoetara". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 81, 2011(4) 11-22.
- Bastardas i Boada, Albert 2005. *Cap a una sostenibilitat lingüística*. Centre d'Estudis de Temes Contemporanis. Angle Editorial.
- Bastardas i Boada, Albert: "Towards a global model of linguistic ecology".
http://www.academia.edu/222968/Towards_a_global_model_of_linguistic_ecology
[Azken irakurketa: 2013-04-16]
- Bastardas i Boada, Albert 2003a. *Linguistic Sustainability and Language Ecology*.
- Bastardas i Boada, Albert 2003b. "Ecodinámica sociolingüística: comparaciones y analogías entre la diversidad lingüística y la diversidad biológica". *Revista de Lengua i Dret*. 39, 119-148. Sarean:
http://www10.gencat.net/eapc_rld/revistes/revista.2008-09-19.0338091891/Ecodinamica_sociolingüística_comparacions_i_analogies_entre_la_diversitat_lingüística_i_la_diversitat/es/at_download/adjunt [Azken irakurketa: 2013-04-16]
- Calvet, Louis-Jean 1999: *Pour une écologie des langues du monde*. Plon. Paris.
- Chomsky, Noam. 2001. "On de war in Afghanistan. Noam Chomsky interviewed by Pervez Hoodbhoy" <http://www.chomsky.info/interviews/20011127.htm> [Azken irakurketa: 2013-04-16]
- Coyos, JB. 2010. Soziolinguistika. Ondorio gisa: hizkuntzen ekologia, lehen ikuspegia. *Aunamendi Eusko Entziklopedia*.
Sarean: <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152063/137089> [Azken irakurketa: 2013-04-16]
- Etxegoien, Juan Carlos. XAMAR. 2001. *Orekan, Herri et Hizkuntzen ekologiaz*. Oruñea. Pamiela
- Erize, Xabier 2011. "Hizkuntza ekologiatik iraunkoratsunera: indarguneak, ahulguneak eta proposamenak" *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 81, 2011(4) 67-86.
- Erize, Xabier 1997. *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa 1863-1936. Soziolinguistika Historikoa eta Hizkuntza Gutxituen Bizitza*. Nafarroako Gobernua, Hezkuntza eta Kultura Departamentua.
- Fishman, Joshua A. 2005: "Zer galtzen dugu gure hizkuntza galtzean?" in Martí, F. et al. 2005 *Hizkuntzen mundua: Munduko hizkuntzen Txostena*. EHU Argitalpen Zebitzua – UNESCO Etxea. Bilbo.
- Giles, H., Bourhis, R.Y. eta Taylor, D.M. 1977. "towards a theory of language in ethnic relations" IN Giles, H (Arg.) *Language, m Ethnicity and Intergroup Relations*. London: Academic Press.

- Guillaud, Yann 2007. *Biodiversité et développement durable*. Karthala: UNESCO.
- Haugen, Ernest. 1972: *The Ecology of Languages*. Stanford University Press. California
- Iñurrategi, Iñigo *Hizkuntza aniztasuna, hizkuntzen ekologia eta hizkuntzen jasangarritasuna. Arizmendi Ikastola*
- Johnson, Marc L. 2003: "Agir sur la langue et être par la langue: les enjeux de la politique linguistique canadienne". in *Colloque international sur l'Écologie des langues 2002*. Paris: L'Hamarttan.
- Larrañaga, Iñaki 1989. "Hizkuntz komunitateen ezaugarriak: talde soziolinguistikoak eta hizkuntz funtzioak". *Jazten aldizkaria*, 1. zenbakia. 1989ko iraila. Sarean: <http://www.topagunea.org/dokumentazioa/jazten-aldizkaria-artikuluak/hizkuntz-komunitateen-ezaugarriak-talde-soziolinguistikoak-eta-hizkuntz-funtzioak-inaki-larranaga/download>. [Azken irakurketa: 2013-04-16]
- Lechevrel, Nadège 2010. *Les approches écologiques en linguistique*. Louvain-La-Neuve: Bruylant-Academia s.a.
- Maffi, Luisa 2005. "Linguistic, Cultural and Biological Diversity". Annual Review of Antropology. Sarean: http://www.csinrcid.ca/downloads/maffi_linguistic_cultural_biological_diversity.pdf. [Azken irakurketa: 2013-04-16]
- Maffi, Luisa & Ellen Woodley 2010. *Biocultural Diversity Conservation. A global Sourcebook*. London: Earthscan.
- Marko J.I 2011a. *Hizkuntzaren arnasguneak eta Hizkuntzarekiko komunitatearen erantzukizuna*. http://www.uema.org/irudiak/editorea/UEMA_Topaketa-Azalpena-2.ppsx [Azken irakurketa: 2013-04-16]
- Marko J.I 2011b. "Komunitatearen Gizarte Erantzukizuna Hizkuntza-ekologiaren parametroetan". *BATY Soziolinguistika Aldizkaria* 81, 2011 (4) 53-64. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.
- Martel, Angéline 2003: "Écologie des langues et idéologies de la solidarité. Á la recherche des conditions de développement des communautés linguistiques minoritaires" in *Colloque international sur l'Écologie des langues 2002*. Paris: L'Hamarttan.
- Martinez de Luna, Iñaki 2013. "Euskarak duen *Framing Berri* baten premia asetzeko proposamena. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 85. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.
- Martinez de Luna, Iñaki 2007. "Hizkuntzen ekologia" *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 65, 105-109. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.
- Martinez de Luna, Iñaki eta Pablo Suberbiola 2010: *Hizkuntza-garapen iraunkor baterantz. HIZNET- Hizkuntza Plangintza Ikastaroa*.
- Moreno Cabrera, Juan Carlos 2008. *El nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva*. Barcelona, Península.

- Muhlhäusler, Peter 1995. *Linguistic Ecology; Language Change and Linguistic Imperialism in the Pacific Rim*. London: Routledge.
- Moreno Cabrera, Juan Carlos 2008: *El nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva*. Barcelona, Península.
- Muhlhäusler, Peter 2005. "Hizkuntz komunitateak" in Martí, F. et al. *Hizkuntzen mundua: Munduko hizkuntzei buruzko txostena*.
- NAZIO BATUAK 1987. *Our Common Future. Report of the World Commission on Environment and Development. Brundland Report Sarean*:
http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=7&cad=rja&ved=0CF4QFjAG&url=http%3A%2F%2Fwww.un.org%2Fvcm%2Fwebdav%2Fsite%2Fclimatechange%2Fshared%2Fasp%2Fdocs%2FGSP1-6_Background%2520on%2520Sustainable%2520Dev.pdf&ei=7iZtUaf_DpSp7AaK4HoCQ&usq=AfQjCNHn8HFmqxZLNWH95DyPvkehdr2Nw&sig2=SSYN5I5YCbJAyNqwoyJfQ
[Azken irakurketa: 2013-04-16]
- Nelde, Peter, Miquel Strubell etA Glyn Williams 1996: *Euromosaic. Producción y reproducción de los grupos lingüísticos minoritarios de la Unión Europea*. Bruselas. Comisión Europea.
- Plataforma per la Llengua: El catalá també és meu. Guia per a nous i futurs parlants de catalá. Barcelona.
- Pradilla, M.A. (coord.) 2004. *Calidoscopi lingüístic. Un Debat Entorn de les llengües de l'Estat*. Barcelona: Octaedro/EUB.
- Prunés, Anna, Montserrat Pérez, Anna González, Lluís Felip. 2008. *Waramurungundi. La sostenibilitat i la diversitat lingüística a l'aula*. Barcelona: Associació de Mestres Rosa Sensat.
- Roig, Elna; Baltà, Jordi 2011. *Approaches to a cultural footprint. Proposal for the concept and ways to measure it*. Centre Mauritus Coppieters. Bruselles.
- Sanchez Carrión, Jose María 1999a. *Lengua y pueblo*. Pamplona. Iruñea.
- Sanchez Carrión, Jose María 1999b. *Aplicación sociolingüística de la territorialidad: márgenes de encuentro, Bilbao y el euskera*. Bilbo. Bilbaoko Udala.
- Sanchez Carrión, Jose María 1987. *Un futuro para nuestro pasado. Claves de recuperación del Euskara y teoría social de las Lenguas*. Bigarren edizioa 1991: Donostia, Julio Urquijo.
- Sanchez Carrión, Jose María 1985. "La buena sociolingüística y la ecología de las lenguas." *Cuadernos de Sección. Hizkuntza eta Literatura*, 4, 327-345 or. Eusko Ikaskuntza,
- Sarasua, Jon 2012. "Kultur bizitzaren azterketa kualitatiboaren emaitzak, ondorioak eta proposamenak". *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 83, 2012(2),11-28. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.
- Sarasua, Jon 2011. "Egungo norabide batzuk eta hizkuntzen ikuspegi ekologikoa" *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 83, 2011(4) ,123-142. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.
- Sarasua, Jon 1997. *Txepetxeekin solasean. Biziazen hizkuntza*. Gara argitaletxea. Bilbo.

- Skutnabb-Kangas, Tove 2000. *Linguistic Genocide in Education or Worldwide diversity and Human Rights*. Lawrence Erlbaum Associates, Pub. Mahwah, New Jersey, London.
- Trujillo Támez, Alma Isela. *Ecología Lingüística*. Sarean http://www.google.es/url?sa=t&rct=j&q=&esrc=s&source=web&cd=1&ved=0CDAQFjAA&url=http%3A%2F%2Fwww.aeli.unam.mx%2Fa1n1%2Fa1n1_trujillo_tamez_np01.ppt&ei=4mRtUcniH4KFhQftyoD4DQ&usg=AFQjCNEP6nnSimfRJ6cQQ3VDNchXksTXbQ&sig2=MABW5yym3P4p4MYOBsO8g [Azken irakurketa: 2013-04-16]
- Urla, Jacqueline eta Jakoba Errekondo 2010. “Zerain.com: Cultural landscape as a framework for integrating sustainable economic futures, heritage and language preservation” Prepared for the Second International Conference on Heritage and Sustainability. Evora, Portugal.
- UNESCO 2012. *Language Matters for the millennium Development Goals*. Bangkok: UNESCO.
- UNESCO 2003a. *Language vitality. A methodology for assessing language vitality and endangerment* <http://www.unesco.org/new/en/culture/themes/endangered-languages/language-vitality/> [Azken irakurketa: 2013-04-16]
- UNESCO 2003b. *Sharing A World of Difference: the earth's linguistic, cultural, and biological diversity*. UNESCO - Terralingua - World Wide Fund for Nature.
- UNESCO 2003c. *Vitalidad y peligro de desaparición de las lenguas. Grupo especial de expertos sobre las lenguas en peligro convocado por la UNESCO*. Paris: UNESCO.
- Uranga, Belen 2011a. *Hizkuntza-ekologia*. HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroa.
- Uranga, Belen 2011b. “Hizkuntza-ekologia. Ekologia biologikoa eta hizkuntza-ekologiaren arteko joan-etorriak”. *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* 2011 (4) 25-50. Soziolinguistika Klusterra. Andoain.
- Wirrer, Jan 2007. “Endangered Languages in Europe. An Ecological Approach” in *Sustaining Language. Essays in Applied Ecolinguistics*. Alwin Fill, HErmine Penz (eds.).Das Land Steiermark.
- Zalbide, Mikel 2009. *Aurrez aurreko jardunaren lekua HINBE-saioetan*. Erabili.com. http://www.erabili.com/zer_berri/muinetik/1247559905 [Azken irakurketa: 2013-04-16]
- Zalbide, Mikel, Xabier Erize *Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko*. HIZNET- Hizkuntza Plangintza Ikastaroa.



2013



ERANSKINA: HIZKUNTZA-EKOLOGIAREN DISKURTSOA LANTZEKO IDEIEN ESKEMA

1. Xede orokorra. IRAUNKORTASUNA
2. BILAKAERA KONTZEPTUALA
3. EKOSISTEMA/HABITAT-a
4. ETIKA

Belen Uranga. Soziolinguistika Klusterra

2013/07/04

1. Xede orokorra. IRAUNKORTASUNA

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
1	<ul style="list-style-type: none"> - Helburua hizkuntza-aniztasuna ondorengo belaunaldien esku uztea da: euskara, kitxua, eskoziera, nepalera... Munduan dauden 6.000 hizkuntza inguru. - Nola egin aurre gaur egungo hizkuntza-beharrei etorkizuneko beharrei erantzuteko gaitasuna galdu gabe? - Egungo gizarteak eleaniztasuna behar du (indibiduala eta soziala). Zer egin eleaniztasuna tokian tokiko hizkuntzen kalteko ez izateko? - Nola egin etorkizuneko belaunaldiek, gutxienez, gaurko hizkuntza-aniztasunaren aukera izan dezaten? 	<p style="text-align: center;">IRAUNKORTASUNA</p> 	<ul style="list-style-type: none"> - Nola egin aurre egungo beharrei etorkizuneko planeta arriskuan jarri gabe? etorkizuneko beharrei erantzuteko gaitasuna galdu gabe? - Iraunkortasuna: Orain arteko hazkunde neurrigabeak jarraitzen badu eta natura-ekosistemak suntsitzen jarraitzen badugu, landare- eta animalia-espezieak ez ezik, giza espeziea ere desagertu egingo da. - Brundtland txostena (1987) eta Rioko konferentzia. - Iraunkortasunaren elementuak:  <ul style="list-style-type: none"> - (Gizateriak ez du etorkizunik iraunkortasunik gabe; gizarte(ar)en desegituratzea lekarke, akaso gizarte gatazkak) 	<ol style="list-style-type: none"> 1. <i>Iraunkortasuna da hizkuntza-ekologiaren helburu nagusia; hizkuntzak hurrengo belaunaldietara igarotzeko baliabideak ziurtatzea.</i> 2. <i>Ondorengo belaunaldiek euren garapenerako aukeratzeko ahalmena izan behar dute.</i> 3. <i>Iraunkortasuna da ekologiaren gune zentrala: giza garapen iraunkorra eta ingurumenaren iraunkortasuna.</i> 4. <i>Garapen iraunkorrak ingurumena, ekonomia eta gizartea elkarlotzen ditu. Kultura-aniztasuna eta hizkuntza-aniztasuna, eredu berriaren zutabe ezinbestekoak dira.</i> 5. <i>Tokian tokiko hizkuntzak beharrezkoak dira. Tokian tokiko komunitateen giza garapenak alderdi kulturalak garatu behar ditu, komunitatearen giza garapena oso mugatua izango da hizkuntza galtzen bada.</i> 6. <i>Aniztasuna ziurtatuz gizakiak eta komunitateek egokitze gaitasun handiagoa dute kanpoko aldaketen aurrean, aukeratzeko ahalmena gordetzen duelako.</i>

1. Xede orokorra. IRAUNKORTASUNA

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
1	<ul style="list-style-type: none"> - Nazioarteko pentsamendu ofizialean gertaturiko aldaketak: UNESCO, Nazio Batuak, Hainbat aldarrikapen, arriskuaren definizioa eta testigantza... mapak, txostenak... programak - Hizkuntza gutxiengoen eskubideen aldeko deklarazioak eta abar. - Nazioarteko erakunde babesleak: Terralingua (http://www.terralingua.org/), eta abar. 	<p>IRAUNKORTASUNA</p> 	<ul style="list-style-type: none"> - Mugimendu kontserbazionistak (naturaren defendatzaileak) lortu dute arrakasta mediatiko, soziala bioaniztasunaren defentsan. - Gailur sozial alternatiboak, mundu mailakoak, eraginkorrak, deigarriak, komunikazio efikazean oinarriturikoak, gizartea mobilizatzeko gai direnak... - Greenpeace (adb.) Izaki bizidunen aldarrikapen kontserbazionista nagusi izatetik giza garapenaren ereduaren kritikara pasatzea, adibidez. - EKINTZAILE IZAERAren hedatzea 	<ol style="list-style-type: none"> 7. <i>Hizkuntza-galera handiko lurraldeetan</i> gizarte egituratzean ere galera handiak gertatzen ari dira. Hizkuntza galtzean kultura galtzen da, eta etorkizuneko egokitze berrien aukerak ahultzen ari dira. 8. <i>Nazioarteko ekimenetan erakunde aldarrikatzaileak</i>, sentiberatzaileak, babesleak (defendatzaileak) eta ekintzaileak arduratsuak dira hizkuntzaren iraunkortasunaren alde ekiten dutenean. 9. <i>Hizkuntzen iraunkortasunaren alde joatea historiaren alde joatea da</i>, justiziaren alde, ekitatearen alde, garapen iraunkorraren alde, mundu hobetoaren alde. 10. <i>Ekintzaile izaera</i> behar du hizkuntza-ekologiak: ekologista izatetik hizkuntza-ekologistara... mundu mailako praktketan, komunitate mailan eta norbanakoaren praktika ekologistak abian jarritz.

2. Bilakaera kontzeptuala

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
2.1	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Hizkuntza-aniztasuna</i> ezagutzetik <i>Hizkuntza-ekologiaren</i> filosofia eta praktikara jauzia egin da: - Munduko hizkuntza-aniztasuna gizateria osoaren ardura, erantzukizuna eta ondare komuna da. - Hizkuntzen galera-arrisku masiboa ez da hizkuntza banakako guztien batuketa soila, mundu mailako fenomeno konektatua da. - Beharrezkoa da erantzuna hizkuntza banakakoen baturen baino erantzun konektatua, elkarlotua izatea. - <i>Hitz egiten ez dudan hizkuntza</i> ere nire ondare, nahia eta ardura ere bada. Hizkuntza denek, <i>txikiak</i> barne, aberastasuna ematen diote gizadi osoari. 	<p>ANIZTASUNA BABESTETIK GARATZERA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ekologiaren bilakaera: Ingurumenaren ezagutza eta babestetik giza garapen eredu berrira. - Ingurumenaren zaintza. - Garapen ekonomiko iraunkorra. - Garapen soziala. 	<ol style="list-style-type: none"> 11. <i>Aniztasuna da gaur egungo gizarteetako ezaugarri ohikoena. Erronka, aniztasunaren kudeaketa ekologikoa lortzea da.</i> 12. <i>Hizkuntza anizdunak izateko gai gara gizakiok eta gizarteak; hizkuntza berriak ikasteak ez dakar aurrekoa ahaztea.</i> 13. <i>Gehiagok gehitzen du, ez murrizten. Hizkuntzak ikasteak burmuina eta nortasuna zabaltzen du, gizartean eta norbanakoan. Hizkuntza ikasteak eman egiten du, aberastu, zabaldu...</i> 14. <i>Etorkizuneko pentsaera da hizkuntza-aniztasuna babestea eta garatzea; aldiz, elebakartasunaren (homogeneotasunaren) aldeko jarrera iraganekoa.</i> 15. <i>Hizkuntza-aniztasuna garatu behar da: ahuldutako hizkuntzari babesa emateaz gain, garatzeko tresnak eskaini behar zaizkio.</i> 16. <i>Hizkuntzen galtzeko arriskua mundu mailako fenomeno orokorra da. Horren aurrean erantzuna mundu mailako ekosisteman eragitea izan behar du.</i>

2. Bilakaera kontzeptuala

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
2.1		ANIZTASUNA BABESTETIK GARATZERA	<ul style="list-style-type: none"> - Ekologiaren bilakaera: Ingurumenaren ezagutza eta babestetik giza garapen eredu berrira. - Ingurumenaren zaintza. - Garapen ekonomiko iraunkorra. - Garapen soziala. 	<p>17. <i>Hizkuntzen galtzeko mundu mailako fenomeno orokorra</i> hizkuntza gutxituetako galtzeko arriskuan islatzen da. Erantzuna hizkuntza gutxitu bakoitzaren ekosistema partikularretan eragitea da tresnak eskaini behar zaizkio.</p> <p>18. <i>Sozialki nagusi diren</i> hizkuntzek ez dituzte tokian tokiko hizkuntzak ordezkatu beharrik, aldiz, <i>horien balioa sostengatu behar dute</i> (euskara iraunkorra izan dadin gaztelania, frantsesa eta ingelesa ikasteak euskararen balioa sostengatu behar du).</p>
2.2	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Urruneko</i> hizkuntza-galerak <i>hurbilekoak</i> ere hondatzen ditu. - Munduko hizkuntza-portaerak nire portaeretan eragina dute. - <i>Hurbileko</i> hizkuntza-praktika ekologikoak <i>mundu mailan</i> eragina du. 	MUNDUA HEMEN; HAU MUNDUAN MUNDUKOA GUREA; GUREA MUNDUKOA	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurumenaren zaintza eta giza garapen iraunkorra gizateria osoaren ondare eta ardura da. - Nire komunitateko erabilera eta zaintzak munduan eragin du. - Hurbileko bioaniztasuna zein urrunekoaren zaintza eta ardura guztiona da. - Urruneko naturaren galerak hurbilekoan eragina du: ni ere hondatzen nau. Mundu mailako ingurumen galera nire ardura ere bada. 	<p>19. <i>Euskara iraunkor</i> egitea gure ardura da. Lortzen badugu munduko gainerako hiztun-komunitateentzat lagungarri izango da; euskara datozen belaunaldiari eskura jartzeko moduan garatzen bada munduko beste hizkuntza asko aktibatuko dira eta guztion aberastasunerako sinergiak sortuko ditu.</p> <p>20. <i>Gurea ez den hizkuntza bat galtzen bada</i> guretzat eta gure hizkuntzarentzat galera eta garapenerako oztopoa da. Aldiz, ahuldutako hizkuntza bat aurrera ateratzen bada gure garapenari bultzada emango dio.</p>

2. Bilakaera kontzeptuala

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
2.2		<p>MUNDUA HEMEN; HAU MUNDUAN</p> <p>MUNDUKOA GUREA; GUREA MUNDUKOA</p>		<p>21. <i>Zenbat eta hiztun-komunitate gehiago indarberritze proiektuetan inplikatu, orduan eta efektu katalizatzaile handiagoa izango da, elkarrekin doazen komunitateen batura baino gehiago izango da.</i></p> <p>22. <i>Globalean pentsatu; lokalean ekin; ekologiari mailegatutako global kontzeptu emankorra.</i></p>

2. Bilakaera kontzeptuala

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
2.3	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Elebakartasunean</i> ez da asetzen gaurko gizartea; <i>hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa</i> ezinbestekoa da, eta hor hizkuntza gutxitua arretaz hartzeko egitasmoak gailendu behar du. - Hizkuntza handien hedapen glotofagikoa vs. hizkuntza-aniztasunari eustea. - <i>Nazioarteko pentsamenduaren diskurtsua</i> (orokorra) aniztasunaren aldekoa da, behintzat esplizituki. Elebakartasunaren ideologiatik hizkuntza-aniztasuneranzko bidea garatzen ari da. - <i>Hizkuntza bakarraren filosofia iraganekoa</i> da; hurbileko hizkuntza gutxituekiko pertzepzio orokorra aldatzen da. - <i>Neurriak abian jartzeko politika aktiboak indarrean jartzeko gomendioak</i> egiten ari dira ahuldutako hizkuntzen alde, aldarrikapenetatik abiatuz. - <i>Ereduaren aldaketa gerta dadin erresistentziak</i> oso handiak dira: botere politiko eta ekonomikoak agintzen baitute. Aldaketak botere horietan eragina izango luke. 	<p>NAZIOARTEKO PENTSAMENDU-JOERA</p> <p>PRAKTIKA ERAGINKORRAK EZARTZEKO BOTERE-ERRESISTENTZIAK</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ingurumenarekiko eta garapen harrapakariaren aldeko diskurtsuak ez dira zuzenak gaur egun. - Nazioartean aniztasunaren aldeko eta giza garapen iraunkorraren aldeko aldarrikapenak eta plangintzak martxan jartzeko gomendioak egiten dira. - Eredu berriak baditu kosteak, elite politiko eta ekonomikoengan aldaketak eta galerak dakarrelako. - Aldarrikapen horietatik praktika eraginkorretarako jauzia emateko, ordea, erresistentziak eta zailtasun oso handiak daude. - Erresistentziak arrazoi ekologikoak indargabetu ordez, argudiaketan, irudimenean eta operatibitatean saiakera sendoagoak bultzatzen ditu. - Praktika alternatiboak martxan jartzen dira: aldarrikatzaileak eta praktikak: mono eta intentsibotik biodibertsitatera. - Abiapuntuan, ekoizpen-ereduaren aldaketak inbertsioa eska dezake, baina luzerako ikuspegia errentagarriagoa eta merkeagoa da. 	<ol style="list-style-type: none"> <i>Hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa</i> gailentzen da gaur egungo nazioarteko gizartean; Aniztasunaren kudeaketa iraunkorra izan dadin hizkuntza gutxitua arretaz hartu behar du gizartean; hurbileko hizkuntza gutxiakiko pertzepzioa eta harremana aldatzen ari da. <i>Hizkuntza handien elebakartasunaren diskurtsua</i> eta hedapen glotofagikoaren ordez hizkuntza-aniztasunari garapen berria gailentzen ari da. Aurrera begirako ikuspegiak ez du elebakartasuna babesten aniztasuna baizik. <i>Botere nagusiengan erresistentziak</i> daude oraindik mundu mailako adituek eta filosofia aurrerakoienak hizkuntza-aniztasunaren aldeko mezuak igortzen dituzten arren. <i>Hizkuntza-galeraren aurrean axolagabekeriak ez du zilegitasunik</i>: “ez zait axola hizkuntza jakin bat galtzea...” esatea ez da zuzena. <i>Erresistentziak ordea</i> argudiatzean irudimenean eta operatibitatean saiakera sendoagoak bultzatuko ditu. Zergatik ez mailegatu praktika ekologistetatik?

2. Bilakaera kontzeptuala

2.4

- *Irabazte kontzeptua* egokiagoa dirudi hizkuntza berreskuratzea kontzeptua baino.
- *Biziberritzea*, sendotzea, bizi-indartzea kontzeptua interesgarriagoa dirudi *bizirautea* baino.
- *Ongizatea kontzeptua* interesgarria da, (disfrutatzea, berez izateko nahia), baita giza garapen eredu berriaren baitan ere.
- Bertako berariazko hizkuntzatik herritar guztien hizkuntzara.



**JABETZA (USTE)
IZATETIK EROALE,
ERAMAILE, EMAILE
IZATERA**

**JARRAIDURA ETA
IREKIDURA**


- Lurra ez da gurea. Gu erabiltzaileak gara. Baina zuhurtziaz erabiliz, ondorengoei emango diegu.
- Nekazaritza arduratsuak jakintza eta praktika jaso, moldatu eta ondorengoei eskaintzeko xedea du.
- Bertakoen jakintza eta ardura baliatu, erabilera berriak emateko.

28. *Hizkuntza ez da gurea*, gu gara hizkuntza-maizterrak; jaso, eraldatu eta eman behar dugulako.
29. *Hizkuntzak erabiltzeko eta emateko dira*: ondokoei, komunitatera etorritakoei eta oinordekoei. Ematea transmititzea da.
30. *Hizkuntza-ekologiaren helburua: iraunkortasuna da; iraunkortasuna hizkuntza-transmisioan gauzatzen da: transmisioa hizkuntza ematea da.*
31. *Euskararen etorkizuna iraganeko esperientzian oinarritzen da*; izanak izatea eta izate nahia ematen du.
32. *Euskararen etorkizuna* ziurtatzeko *non hitz egitea nahi dugun adostea* are garrantzia handiago du, eta euren erabakitze gaitasuna ziurtatzea ondorengo belaunaldikoei.
33. *Hizkuntzarentzat irabazte kontzeptua* egokiagoa dirudi hizkuntza berreskuratze kontzeptua baino. Horrela, inoiz euskara izan ez dutenak errazago hurbilduko dira.
34. *Bertako berariazko hizkuntza kontzeptua* erreala da; *herritar guztien hizkuntza* erreala izatea lortu behar da: gaenak baino gehiago bilduko gara.
35. *Izatearen barrotasuna sentitu*, erakutsi, eskaini eta partekatze gonbitea egitea da erronka.

3. ANALITIKA. Hizkuntz(ar)en EKOSISTEMA / HABITAT-a

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
<p>3.1</p>	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Ekosistema linguistikoa</i> hizkuntza(ar)en iraupenerako ezinbesteko funtzioen harreman-sarea da. - <i>Transmisioan gauzatzen da</i> hizkuntzaren iraupena: a) belaunez belaunekoan; b) hedatze sozialaren bitartez gertatzen denean.  <ul style="list-style-type: none"> - Ekosistemaren araberako lehentasunezko funtzioak ziurtatu behar dira, transmisioa eragin/sendotuko dutenak 	<p>EKOSISTEMA kontzeptua</p> <p>Bizitzarentzat ezinbesteko diren elementuen harreman-sistema (Biologia).</p> <p>Harremanak deskribatzeko eta ulertzeko sistema (Giza zientzietan azterketa-eredua)</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Ekosistema bizitzarako ezinbesteko elementuen harreman-sarea da; existentziaren, izatearen baldintzen zientzia. - Ekosistema ingurune jakin bateko osagai fisiko eta biologikoez osatzen duten sistema da. - Ekosistemak ezegonkortasunean oinarritzen diren sistema jarraitu egonkorak dira. - Ekosistemak sistema hierarkikoak dira. - Ekosistemak aldagai ezinbestekoak eta aldakorrek bereizten ditu. 	<ol style="list-style-type: none"> 36. <i>Ekosistema</i> hizkuntzak garatzeko beharrezko diren inguruneak dira. Ingurune egokirik gabe hizkuntzak ahuldu eta ordezkatuak izateko arriskuan jartzen dira. 37. <i>Gizartean dago hizkuntzaren ekosistema</i>; hizkuntzaren ingurunea gizartea da. Euskararen ekosistema Euskal Herriko gizartean dago. 38. <i>Hizkuntza(aren) habitata</i> osasuntsu egoteko - iraukorra izan dadin- gutxieneko funtzioak bete behar ditu. 39. <i>Gizarteak</i> ematen dizkio hizkuntza ahulduari etorkizuneko funtzio ezinbestekoak: gizartearen identitatea, gizartearen kultura, gizartearen komunikazio lokalari eta nazionalari loturikoak, familiarra, pertsonala. 40. <i>Gizakiak ere bere funtzioak ematen dizkio hizkuntzari</i>: gizarteak eta gizabanakoek emaniko funtzioek ez dute, ezinbestean, berdina izan beharrik; norbanakoak gizartearen joeraz gain erabaki propioak hartzeko gai da. 41. <i>Ekosistemari abalik eta modu osatuenean begiratu behar zaio</i>. Indargunek eta ahulgunek sistema osoan ageri dira: alderdi batean ekiten bazaio ondorioa sistema osoan antz ematen da.

3. ANALITIKA. Hizkuntz(ar)en EKOSISTEMA / HABITAT-a

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
<p>3.1</p>		<p>EKOSISTEMA kontzeptua</p> <p>Bizitzarentzat ezinbesteko diren elementuen harreman-sistema (Biologia).</p> <p>Harremanak deskribatzeko eta ulertzeko sistema (Giza zientzietan azterketa-eredua)</p>		<p>42. Babes ofizialarekin loturiko funtzio soziolinguistikoak oinarritzekoak dira, abiapuntuzkoak. Botere publikoek euren ardura hartu behar dute hizkuntza ahulduen defentsan eta garapenean, ezinbestean. Alderdi horren ahuleziak sistema osoa ahultzen du.</p> <p>43. Gizartearen borondatean dago babes ofizialaren abiapuntua, adostasun politikoan. Gizarteari bere erantzukizuna eta inplikazioa eskatzea zilegi da.</p> <p>44. Gizarte eragileek ere hizkuntzaren estatusa garatzen dute. Gizarte eragileei bere erantzukizuna eta inplikazioa eskatzea zilegi da.</p> <p>45. Komunikazio-bideak sortu eta hedatu behar dira. Gizarteko hedabideek euren gizarte arduraren jabe izan behar dute. Hizkuntzen ekologiaren planteamendua onartzen badute gizartearen etorkizunari begirako proiektuaren parte izan daitezke. Komunikabideei gizarte erantzukizuna eskatzea zilegi da.</p> <p>46. Gizabanakoaren praktikak eta hizkuntzari emaniko funtzioek hizkuntzaren estatusan eragiten dute. Gizabanakoari erantzukizuna eta inplikazioa eskatzea zilegi da.</p> <p>47. Gizarteak hizkuntza-kudeaketa ekologikoa etorkizuneko proiektu modura hartu behar du, datozen belaunaldiak eskura (ahora) izan dezaten landuko dena.</p>


3. ANALITIKA. Hizkuntz(ar)en EKOSISTEMA / HABITAT-a

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
3.1	<p>Diagram illustrating the components of identity: profesionala, familiarra, identitate, nazionala, zibilizazio-, and internazionala.</p>	<p>EKOSISTEMA kontzeptua</p> <p>Bizitzarentzat ezinbesteko diren elementuen harreman-sistema (Biologia).</p> <p>Harremanak deskribatzeko eta ulertzeko sistema (Giza zientzietan azterketa-eredua)</p>		<p>48. <i>Euskarak espazioa ziurtatu behar du nazioarteko hizkuntzarekin, gaztelania/frantsesarekin eta presente dauden gainerako hizkuntzekin kontaktuan dagoelako.</i></p> <p>49. <i>Ekoiaren kulturean... auto-irudia hobetzea eta gainerakoei (munduari) erakustea etorkizuneko jarrera da. Kulturak bereziki balioan jartzen du tokian tokitik unibertsaltasunerako egindako saltoa: erakargarria egiten duena.</i></p> <p>50. <i>Printzipio etikoen arabera gizarte osoaren inplikazioa behar da: hiztun diren eta ez direnena, euren buruak hiztun-komunitatearen parte ikusten dutenenena eta, hala izan gabe, gizartearen parte direnena.</i></p> <p>51. <i>Gizarte mailako babes eta garapen neurriak hartzea zilegi izateaz gain, beharrezkoa ere bada, ahuldutako hizkuntzaren alde.</i></p>


3. ANALITIKA. Hizkuntz(ar)en EKOSISTEMA / HABITAT-a

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
<p>3.2</p>	<ul style="list-style-type: none"> - <i>Hizkuntzaren funtzioak</i> aldagai sozio/politikoan, demografikoan, kulturalen arabera sortzen/esleitzen dira, gizakiongan eta komunitateongan eragiten <div style="text-align: center; margin: 10px 0;"> </div> <ul style="list-style-type: none"> - duten ondorio psikologiko eta sozialekin batera. - <i>Ekosisteman</i> desoreka handiegia badago hizkuntzaren transmisioan eragingo du (barne eta kanpo transmisioan). - <i>Ekosistemaren</i> aldagai batean eraginez gero, ondorioa sistema osoan sentituko da. 	<p>EKOSISTEMAREN aldagai sistemikoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Aldagai desberdinek osotasuna egiten dute, aldagaien batura baino gehiago dira elkar eraginean daudelako 	<ul style="list-style-type: none"> 52. <i>Azpi-ekosistemak kontuan hartu behar dira</i>, ingurune soziolinguistiko desberdinetan eraten direnak. 53. <i>Azpi-ekosistemak kontuan hartu behar dira</i>, euskarari lehenetsuneko hizkuntza-funtzioak emanaz gero. 54. <i>Azpi-ekosistema horietan hizkuntzaren iraunkortasuna garatzeko</i> neurriak desberdinak izango dira. Behin helburua adostuz gero, egoera soziolinguistiko desberdinetan neurri desberdinak hartzea erraz ulertuko da. 55. <i>Euskararen lehenetsuneko funtzioak</i> izango dituen guneak izendatzeko zilegitasuna badago Azpi-ekosistemen ezagugarrien arabera: <i>arnasgune</i> kontzeptua. 56. <i>Arnasgune naturalak babestea zilegi da</i>: a) berezko duten hizkuntza-transmisio naturalak hizkuntzaren ekosistema osoan ondorio oso positiboak dituelako, eta b) gutxiengoaren berezko eragin-guneak zaintzea zilegi delako.


3. ANALITIKA. Hizkuntz(ar)en EKOSISTEMA / HABITAT-a

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
<p>3.2</p> 		<p>EKOSISTEMAren AZPIEKOSISTEMAK</p>		<p>57. <i>Arnasgune funtzionalak eraikitzea zilegi da:</i> a) hizkuntza-transmisioan hizkuntzaren ekosistema osoan ondorio oso positiboak dituelako, eta b) gutxiengoaren berezko eragin-guneak zaintzea zilegi delako.</p> <p>58. <i>Neurriak zein printzipio etikoren arabera hartzen diren</i> komunikatzeari eta azaltzeari arreta berezia jarri behar zaio; horrek sorrarazi dezakeelako aldeko sinergia eta konplizitatea, eta, aldi berean, ekidin dezakeelako kontrako jarrera pertsonalak eta sozialak.</p> <p>59. <i>Gizakiaren alderdi psikologikoak eta giza borondatearenak</i> ondo kontuan izan behar dira, neurri sozialak hartzerakoan ondorio pertsonalak ere eragiten direlako.</p> <p>60. <i>Nagusia den hizkuntzetako biztunenengan ez luke arrisku sentimendurik</i> sortu behar hizkuntza gutxituaren aldeko neurriak hartzea, hainbat esparrutan funtzio eskusiboak esleitzea; akaso, konplizitatea..., hori eskatu beharko da. <i>Nagusiengoaren espazio eskusibo propioak oso ugariak dira.</i> Beraz, neurri horiek hartzea sustatu beharko litzatekeen.</p>

3. ANALITIKA. Hizkuntz(ar)en EKOSISTEMA / HABITAT-a

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
<p>3.2</p>		<p>EKOSISTEMAren AZPIEKOSISTEMAK</p>		<p>61. <i>Arnasgune naturaletan: enskararak lebertasuneako funtzioak ditu.</i> Nolanahi ere, arreta jarri behar da hizkuntzaren funtzio berriei, berrituei; <i>Funtzio ofiziala nagusiki nagusitzen den eremutan zein funtzio sendotzea komeni da?</i> Taldekoa, komunitatekoa... <i>Identitate funtzioa eta familiarra</i> garatuta dauden eremu soziolinguistikoetan funtzio profesionala, kulturala, soziala sendotzea komeni da.</p> <p>62. <i>Arnasgune funtzionalaren adibide ederra eskola da. Hizkuntzaren ekosisteman duen lebertasunezko lekua jabetzen da.</i> Hiztuna eta komunitatearen arteko lotura (hartu-eman) lantzeko, aberasteko eta balioan jartzeko aukera ezin hobea izango du.</p> <p>63. <i>Eskolak hizkuntzen gaineko irakurketa eta irakaskuntza kritikoa</i> egin dezake: hizkuntza nagusien irakaskuntzaz gain, bertako hizkuntzaren etorkizuna ziurtatzeko tresnak eskainiz eta gizartean presente dauden gainerako hizkuntzei aitortza eta euren lekua egiteko eskubidea dutela erakutsiz. Hizkuntza-ekologiaren bidetik gizaki justuagoak hezteko aukera izango du.</p> <p>64. <i>Lan-esparru desberdinak hizkuntza(ar)en azpi-ekosistemak dira.</i> Enpresa-, lan-mundua gizarte-erantzukizunarekin eta balio sozial erantsiarekin lotuta hizkuntzaren garapen iraunkorrarekin bat egin dezake.</p>

3. ANALITIKA. Hizkuntz(ar)en EKOSISTEMA / HABITAT-a

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
<p>3.2</p>	<p>- <i>Ekosistema partzialak</i> planteak daitezke irizpide soziolinguistikoaren arabera.</p> <p>- Zer funtzio banaketa aurreikusi daitezke?</p>  <p>- <i>Ingurune soziolinguistikoaren arabera</i> eredu ekosistemiko desberdinak gartu dira, (des)oreka desberdinak: Desberdintasun horien araberako lehenetsuneko funtzioak bereizi daitezke?</p> <p>Hizkuntza gutxituko eta nagusitako hiztunen inplikazioa eskatzen du; gizarte osoaren inplikazioa, ezinbestean.</p>	<p>EKOSISTEMAren AZPIEKOSISTEMAK</p>	<p>- Ekosistema mota desberdinak bereizten dira: adibidez, lehorreko eta uretako ekosistemak, bakoitza bere azpi sailkapen eta berezitasunekin.</p> <p>Ingurune jakin mugatuagoaren araberako ekosistemak ere bereizi dira</p>	<p>65. <i>Ikuspegi ekonomikotik</i> ere enpresak, lan-munduak hobekuntzak besterik ez ditu izango hizkuntza kudeaketa ekologikoa planteatzen badu; zerbitzu hobetza eskainiz, onura ekonomikoak jasoko ditu.</p> <p>66. <i>Nazioartean ingelesez eros daitezke</i> baina saldu bertako hizkuntzan saldu behar da, eta nazioartean beste hizkuntzak ere hitz egiten dira. <i>Bertan enskaldunenganako bezeroenganako</i> politika hobetza izango da.</p>

3. ANALITIKA. Hizkuntz(ar)en EKOSISTEMA / HABITAT-a

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
3.3	<ul style="list-style-type: none"> - Ingelesaren kasuan, kontuz ibili; Kolokan jarri behar da hedatze ez-kritikoa; - Ingelesaren kasuan ikasleei hizkuntzaren forma estandarrera heltzeko eskubidea ziurtatu behar zaie, sozialki eta ekonomikoki ospea baitute, eta hizkuntzen jabeakuntza ziurtatuko zaie. Sistema publikoak egiten ez badu desberdintasuna sozialak areagotu daitezke. - Begiratu behar da hizkuntza desberdinen arteko hierarkizazioak nora garamatzen, eta [...] hizkuntzak erabiltzen dituen errepresentazioekin oso kritiko izan gaitezke. [...] - Gaia ez da ingelesaren hedatzearen aurka egotea baizik eta horren aurreko ikuspegi kritikoa izatea, horrela eginez gero, aukerak (baita kultura-aukerak ere) egon daitezkeela hizkuntza-komunitatearen ikuspegitik. 	<p>INGURUMENA/ GIZAKIA/ GIZARTEA/ HARREMAN EKOSISTEMIKOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Lurraldearen ikuspegitik definitzen diren babes-eremuak, errekuperazio eremuak, bai naturaren ikuspegitik eta baita ikuspegi historikotik ere. - Gizakiaren praktika ekonomiko neurrigabeari eta antolamenduzko mugagabeari galga jartzeko neurriak, babes-neurriak eta errekuperazio neurriak. - Mundu mailako merkatuei muzin egin gabe bertako garapen eredu propioen lanketa, birdefinizioa, berrantolaketa eta balioan jartzea. - Ekonomia naturaren araberako antolaketa auto-erregulatzailaren birdefinizioa. 	<ol style="list-style-type: none"> 67. <i>Hizkuntza giza taldearen garapenaren isla da, izatearena, historiarena, ezagutzarena, kulturarena, ingurumenari egokitzeko gaitasunarena.</i> 68. <i>Hizkuntza/Hiztuna/Hiztun-komunitatea: Hiru elementuren arteko harremana hartu eta emanikoa da: eskaintza bat.</i> 69. <i>Eskaintza eta harreman hizkuntzaren baitan hazi denari eta hizkuntzara irabazi denari egiten zaio.</i> 70. <i>Hizkuntzak biztunari izatea eta izana ematen dio; mundu-ikuskerat bat</i> 71. <i>Hiztunak hizkuntza ulertzen, erabiltzen, moldatzen, egokitzen, garatzen du; hizkuntzari ematen dio.</i> 72. <i>Hizkuntzak komunitateari nortasuna, munduko ikuskera, historiaren ezagutza, munduan lekua ematen dio.</i> 73. <i>Komunitateak hizkuntzari aitortza, egokitzapena, izateko borondatea ematen dio.</i> 74. <i>Hiztunak komunitateari izatea ematen dio.</i> 75. <i>Komunitateak hiztuna taldean integratzen, babesten, garatzen eta proiektatzen du.</i>

4. ETIKA

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA: PRINTZIPIO ETIKOA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
4.1	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza-aniztasunak <i>balio unibertsala</i> du; gizakiaren kreatibitatearen adierazpidea da. - Hizkuntza-aniztasuna <i>gizakiaren etorkizuna bermatzeko</i> ezaugarria da. - Hizkuntza-aniztasuna <i>galtzeko arrisku</i> bizian da. - Hizkuntza-aniztasuna <i>babestu</i> behar da. - Hizkuntza nagusienetakoengan eragina. 	<p>ANIZTASUNAREN BALIO UNIBERTSALA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Biodibertsitatea babestu behar da . - Biodibertsitatea gizakiaren etorkizuna bermatzeko baldintza da. - Biodibertsitatea galtzeko arrisku bizian da - Ekologismoan bi kontzeptuak erabiltzen dira: - Bioaniztasunaren, izaki bizidunen espezien biziraupena - Giza garapenarekiko ongizate kontzeptua. 	<ul style="list-style-type: none"> 76. <i>Hizkuntza-aniztasunarena gizateriaren aberastasun handienetakoa da</i>, eta hala aitortuko zaio berandu baino lehen. 77. <i>Gizakia hizkuntza-aniztasunaren galeraren aurrean uskur agertzen da</i>. Bioaniztasunaren galeraren aurrean kezkatzen hasia da jadanik, zerk bereizten ditu biak?. 78. <i>Eredu ekologikoaren aldeko ekimenetan hizkuntza-aniztasuna integratzea ezinbestekoa da</i>, kultura-aniztasuna, bioaniztasuna eta giza garapena elkarrekin doazelako. Erantzuna, beraz, elkarrekin joan behar du. 79. <i>XXI. mendean ez dago benetako ekologiarik hizkuntza-aniztasuna kontuan hartzen ez badu</i>. 80. <i>Hizkuntza-aniztasuna garatu dadin baldintzak eskaini behar dira</i>, babesteaz harago. 81. <i>Abulduetako hizkuntzetako hiztunak</i> eta komunitateak biziberritze-proiektuan aktibatuta behar ditu printzipio etiko honek.

4. ETIKA

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	ARRAZOI-MOTA: PRINTZIPIO ETIKOA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
4.1	<ul style="list-style-type: none"> - Elebakartasun edo elebitasunetik hizkuntza-aniztasunera. - Gaurko gizartea ez da asetzen elebakartasunean. Hizkuntza gutxitua arretaz hartutako hizkuntza-aniztasunaren kudeaketa gailentzen da. - Hizkuntza bakarraren filosofiak ez du gaurkotasunik, eta hurbileko hizkuntza gutxiekiko pertzepzioa eta harremana aldatzen da. - Hizkuntza handien hedapen glotofagikoa vs. Hizkuntza-aniztasunari eustean eta bere garapenari eustea. 	<p>ANIZTASUNAREN BALIO UNIBERTSALA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Mono eta intentsibotik biodibertsitatera. - Aniztasuna gorde behar da arrisku-aukeren aurrean irauteko ahalmena ziurtatzeko modu bakarra delako. Nik ere behar dut bioaniztasuna zaindu dadin. - Gizakiaren esku hartzeetan ere aniztasuna ziurtatu behar da, homogeneotasunak higadura, agortzea eta ezusteei erantzuteko gaitasunaren galera. 	<p>82. <i>Hizkuntza nagusietako hiztunak eta komunitateak</i> ere aktibatu behar ditu eurak ere euren ondareaz jabetu behar dutelako, eta ardura etikoa dutelako.</p> <p>83. <i>Eleaniztasunak etorkizuneko gizateriaren</i> erronkei aurre egiteko aukera aproposak eskaintzen ditu.</p> <p>84. <i>Erronka hizkuntza gutxituen</i> garapena ziurtatuz gizarte eta giza banako eleanitzak eraikitzea da.</p> <p>85. <i>Hizkuntza txikiak egokitzeko</i>, giza taldeei erantzuteko eta irauteko aukera gehiago dute hizkuntza-aniztasunaren bidetik.</p>

4. ETIKA

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	PRINTZIPIO ETIKOA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
4.2	<ul style="list-style-type: none"> - Hizkuntza guztiek berezko balio berbera dute. Sozialki desberdintasunak badaude hizkuntza-funtzio banaketa hierarkikoa eman delako da. Giza taldeen arteko desberdintasunak islatzen dituzte hizkuntza-hierarkia horiek - Egoera ahulagoan dagoen orok neurri orekatzailek behar ditu aukera berdintasuna izango badu. - Egoera sozial desberdinetan dauden hizkuntzek neurri desberdinak behar dituzte. - Neurriak: babes neurriak, babes-guneak eraikitzea edota neurri orekatzaileak hartzea zilegi da. - Balio berdintasuna eta funtzio dibertsitatea onartu behar da. - Gutxiengoa den taldeak, kolektiboak -edo dena delakoak- bere garapen eredu propioak izateko, euren bizipen propioak garatzeko eskubidea dute. - Gizarte demokratikoaren lorpen garrantzizkoenetakoa da gehiengoaren iritzia, pentsaera eta portaera ez izatea gutxiengoenarentzat debeku-iturri. 	<p>BERDINTASUNAREN PRINTZIPIOA</p> <p>EKITATEA lortzea helburu</p> <p>GUTXIENGOAREN aldeko balio etikoa</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Babes neurriak hartzea zilegi da.  <ul style="list-style-type: none"> - Babes guneak eratzea zilegi da - Neurri orekatzaileak hartzea zilegi da. - Neurri horiek (babes zein orekatzaileak) eragina izan dezakete norbanakoaren askatasunaren mugetan. - Onura edo behar kolektiboak lehenesten dira maila pertsonalekoak baino 	<ol style="list-style-type: none"> 86. <i>Berdintasunaren printzipioa: Desberdin dagoena berdin tratatzea ez da berdintasuna, injustizia baizik. Aukera berdineko egoerara, ekitate-egoerara heltzeko neurriak hartu behar dira.</i> 87. <i>Hizkuntza guztietako komunitateek euren hizkuntza erabiltzeko aukera berdinak izan beharko lituzkete.</i> 88. <i>Aukera berdintasunera heltzeko neurri orekatzaileak hartzea zilegi eta beharrezkoa da.</i> 89. <i>Ez dago berezko hizkuntza handiagorik, hobeagorik, zailagorik, ederragorik, egokiagorik..., aurreiritzi eta plangintza jakinen emaitza da hizkuntzen hierarkizazioa.</i> 90. <i>Hizkuntzen arteko desberdintasun sozialek gizarte desberdintasunak islatzen dituzte.</i> 91. <i>Gutxiengoen ideologiak eta elkartasunean oinarritutakoak goranzko joeran daude, ideologia hegemonikoak nagusi diren arren. Baita hizkuntzen kasuan ere.</i> 92. <i>Hizkuntza guztiak egokitu daitezke egungo eta etorkizuneko erronkei erantzuteko, komunitateak hala nahi izanez gero, eta aukera eta baliabideak eskainiz gero.</i>

4. ETIKA

	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	PRINTZIPIO ETIKOA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
4.3	<ul style="list-style-type: none"> - Hurbileko hizkuntza txikiak egin dezakeena ez dezala handiagoak egin (lekuan lekuko hizkuntzak bete ditzakeenak kanpoko hizkuntzak ez dezala bete. - <i>Lingua franca</i>rekiko harremanetan - <i>Immigrazio</i>-hizkuntzekiko 	<p>SUBSIDIARITATE PRINTZIPIOA</p>	<ul style="list-style-type: none"> - Tokian tokiko praktika ekologikoak: nekazaritza, kontsumoa, garraioa, eraikinak, kultura-produkzioa zainduz... 	<p>93. <i>Hurbileko hizkuntzak, tokian tokikoak, egin dezakeena ez dezala hizkuntza bedatzuileak, handiagoak, egin.</i> Hurbileko hizkuntza txikiak bete ditzakeen funtzioak hizkuntza horretarako gorde, hizkuntza handiak funtzio horiek jan ez ditzan.</p> <p>94. <i>Hizkuntza nagusienetakoen konplizitate</i> bilatzea ezinbestekoa da, horretarako komunikazioa ziurtatuko da.</p> <p>95. <i>Gizarte mailako eragina eta maila pertsonalekoak: biografia linguistikoaren kontzientzia</i> hartuz gero hizkuntza-ekologiaren iturria balioan jarriko da.</p>

4. ETIKA				
	HIZKUNTZA-EKOLOGIA(k)	PRINTZIPIO ETIKOA	EKOLOGIA(k)	DISKURTSOAREN ELEMENTUAK
4.4		ELKARTASUNAREN PRINTZIPIOA / ZUHURTZIAREN PRINTZIPIOA		<p>96. <i>Komunitate gutxituen arteko elkartasun-mugimenduak</i> ugaritzen ari dira eta gehiago ugarituko dira aurrerantzean.</p> <p>97. <i>Elkartasunaren printzipioaren arabera</i> ukipenezko hizkuntzen arteko funtzio banaketa errazago erabakitzen da: gutxiengoaren arteko harremanak errazten dira, eta gehiengoengan ere etikoki eragiten diete.</p> <p>98. <i>Elkartasunaren erronka da ahuldutakoaren iraupena ziurtatzea</i> da aniztasunaren baitan. <i>Besteenganako errespetuaz norberarenaren aldarria</i>, gonbitea, ezagutzan sakontzeko nahia, eta sozialki ahulago dauden hizkuntzenganako errespetua eta jakin-mina erakustea.</p> <p>99. <i>Hizkuntza-iraunkortasunaren proiektuan inplikatzeta</i> da helburua. Aniztasunaren iraunkortasunean geu eta besteak inplikatzeta, printzipio etikoen aplikazioaren bitartez: aniztasuna, berdintasuna, ekitatea lortzea.</p> <p>100. <i>Zuhurtziaren printzipioaren arabera</i> kanpokoaren liluraren aurrean tokian tokiko garapena sustatzea</p>